

Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta
Gasteizko Gotzainen Pastoral Idazkia

Eraman oneko erkatzea

Elizaren eta Munduaren
arteko harremana birpentsatuz



GARIZUMA - PAZKOA 2025

IRUÑEA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA
GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK

ERAMAN ONEKO ERKATZEA
Elizaren eta munduaren arteko harremana birpentsatuz

IRUÑEA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL GUTUNA

2025EKO GARIZUMA-PAZKOALDIA

IDATZ
—argitaletxea—

© Idatz, 2025

Edición en Castellano
“El contraste paciente”
ISBN: 978-84-96903-80-7
LG D 240-2025

Euskeraz
“Eraman oneko erkatzea”
Itzultzailea: Unai Manterola Albizu
ISBN: 978-84-96903-81-4
LG D 241-2025

Plaza del Buen Pastor, 15 bajo
20008 Donostia / San Sebastián
Tlf.: 943 465 326
<https://elizagipuzkoa.org>
idatz@elizagipuzkoa.org

Kristauak ez dira beste gizakiengandik bereizten, ez bizi diren lekuagatik, ez mintzaeragatik, ez ohiturengatik. Greziako hirietan eta hiri barbaroetan bizi dira, suertean tokatu bezala, herrialdeko biztanleen ohiturak jarraitzen dituzte... eta hala ere, bizimodu miresgarriaren eta, guztien iritziz, sinestezinaren aztarnak ematen dituzte... Lur arrotz oro aberria da haientzat, baina aberri orotan daude lur arrotzean bezala. Denak bezala, ezkondu eta seme-alabak sortzen dituzte, baina ez dituzte sortutakoak baztertzen. Mahaia komunean dute, baina ez ohea. Haragian bizi dira, baina ez haragiaren arabera. Lurrean bizi dira, baina haien herritartasuna zeruan dago. Ezarritako legeak betetzen dituzte, eta beren bizimoduarekin lege horiek gainditzen dituzte. Denak maite dituzte, eta denak dituzte atzetik. Ezagutu gabe kondenatzen dituzte. Heriotza ematen zaie, eta horrela hartzen dute bizia. Pobreak dira eta asko aberasten dute; ez dute ezer, eta dena ugari dute. Desohorea jasaten dute, eta horrek ospea ematen die; beren ospearen aurkako irainak jasaten dituzte, eta horiek haien justiziaren lekuko dira. Madarikatu eta bedeinkatu egiten dituzte; lotsagarrikeriaz tratatzen dituzte, eta haiek, ordainetan, ohorea itzultzen dute. Ongia egiten dute eta gaizkile bezala zigortzen dituzte; heriotzara kondenatuak izatean, bizia jasota bezala pozten dira.

ANONIMO, *Diognetori gutuna*, Padres Apostólicos,
Ed. Clie, Madrid, 2018.

Guk, gure aldetik, anai-arreba maiteok, filosofoak garenok, ez hitzez, ekintzez baizik..., bertutetsuak izan behar dugunok itxuraz baino gehiago, handitasunik erakutsi beharrik ez dugunok, bizi baizik, Jainkoaren zerbitzari eta gurtzaile garen aldetik, Jainkoaren irakaspenetatik ikasi genuen pazientzia gauzatu dezagun, espirituaren mendetasunez. Bertute hau Jainkoarekin berarekin bat dator. Berarengandik dakar jatorria eta bere duintasuna eta ospea hartzen ditu. Harengandik dator Bere handitasuna. Gizakiak Jainkoak hain maite duena maitatu behar du. Jainko gorenak estimatzen duen izakiak berak gomendatzen digu bere ontasuna. Jainkoa gure Aita eta Jauna bada, imita dezagun gure Jaunaren eta gure Aitaren pazientzia, zerbitzariak esaneakoak izan behar dutelako eta seme-alabek ezin dutelako bizkar eman.

KARTAGOKO SAN ZIPRIANO, *Sobre los bienes de la paciencia*,
en *Obras completas I*, Ed. BAC, Madrid, 2013.

AURKIBIDEA

SARRERA	7
1. «KRISTAUDIKO ELIZAZ» HARAGO	11
2. SALAKETA EDO LEKUKOTASUNA	17
<i>Lagun eta etsai</i>	17
<i>Eraman oneko lekukotasuna</i>	20
<i>Jonas justiziazale zorrotza eta Jainkoaren ironia</i> <i>pairakorra</i>	21
3. LURRAREN GATZ IZATEA.....	23
<i>Eragin edo gonbidatu</i>	24
<i>Zoriontasunak gauzatu</i>	26
4. LEHEN KRISTAUEN ERAMANPENA.....	27
<i>Kristautasunaren hazkunde azkarra</i>	28
<i>Kristauen 'habitus'-a</i>	30
<i>Kutsadurazko hazkundera</i>	32
<i>Kultua, 'habitus' kristauaren eratzailea</i>	33
<i>Katekumenotza, ikasle izateko ate estua</i>	34
5. PARADIGMA BERRI BAT:	
TESTIGANTZA XUMEAREN INDARRA	36
<i>Elkartearen lekukotasuna, gure garairako lehentasuna</i>	36
<i>Txikitasunetik lekuko</i>	38
<i>Bedeinkatzen eta onartzen duen Jainkoaren</i> <i>maitasunaren lekuko</i>	42

<i>Gurutzearen indarraren lekuko</i>	43
<i>Gizadiaren batasunaren lekuko</i>	45
<i>Alaitasunaren lekuko</i>	47
6. ARDO BERRIA ZAHAGI BERRIETAN:	
ELIZA BERRITUAREN ZERTZELADAK.....	49
<i>Konfiantzan bizi den Eliza</i>	49
<i>Fede esperientzia lantzen duen eEiza</i>	51
<i>Konfiantza sorrarazten duen Eliza</i>	52
<i>Apaltasun bidea egiten duen Eliza</i>	53
<i>Jomuga Hitzagan bilatzen duen Eliza</i>	54
<i>Eukaristia janari duen Eliza</i>	56
<i>Mundutarkeriari eusten dion Eliza</i>	57
<i>Konplexudun izatea gainditzen duen Eliza</i>	59
<i>Bere sinodo-izaera bereganatzen eta garatzen duen Eliza</i>	60
<i>Bazterretatik senidetasuna eraikitzen duen Eliza</i>	62
<i>Ebanjelizatzen duen laikodun Eliza</i>	64
<i>Lehen iragarpena lehenesten duen Eliza</i>	65
<i>Fedea familian bizitzea eta helaraztea animatzen duen Eliza</i>	67
<i>Fedean indartsu nahiz ahul direnak onartzen dituen Eliza</i>	68
<i>Bake soziala eta herrien artekoa sustatzen duen Eliza</i>	69
ONDORIOA	71
BIZITZA BERRIKUSTEKO GIDA	75

SARRERA

1. 2025eko Garizuma une bereziki esanguratsu bezala aurkezten zaigu, Jubileu Urtearen baitan gertatzen baita. Gertakari hori hogeita bost urtean behin antolatzen du Eliza unibertsalak, graziako eta berritze espiritualeko aparteko aldi gisa. Egoera pribilegiatu honek norbere eta elkartearen bihotz-berritzerako ariketa sakon batera gonbidatzen gaitu, gure bizitza Ebanjelioaren argitan aztertuz. Jubileuak erromesaldirako eta adiskidetzarako egiten digun deiak oihartzun berezia du Elizaren bizitzari eragiten dion aldaketa kultural eta sozial sakoneko une honetan. Europako gizartearen sekularizazioak, azken hamarkadetan bereziki areagotu denak, erronka berriak dakartzkio kristau-elkartari. Kulturaren eta gizarte-bizitzan kristautasuna nagusi zen garaitik jasotako eskema pastoralei ezin zaie eutsi. Egoera berri honek, geldiarazi beharrean, gure bizimodua sormenez eta fideltasunez birpentsatzera eta munduarentzat Biziaren Hitza den Kristoren testigantza ematera gonbidatzen gaitu.

2. Idazki honek bihotz-berritze pastoral eta misiolari horri lagundu nahi dio, garai historiko bakoitzean Espiritu Santuak bere Eliza gidatzen jarraitzen duelako ustean oinarrituta. Ate Santua zeharkatzen duten erromesek bezala, Garizumako garai honek berrikuntza sakon batera gonbidatzen gaitu, gure fedearen funtsezkoena berraurkitzen lagunduko diguna. Gure proposamena Jainkoaren Hitzean oinarritzen da, dena argi berri batez argitzen baitu; bai lehen kristauen esperientzian ere, beren

gizarte-ingurunean testigantza sinesgarria ematen jakin baitzuten; oraintsuko magisteritzaren orientabideetan ere bai, egungo erronkei erantzuteko konbertsio pastoral batera gonbidatzen baikaituzte.

3. Orrialde hauetan zehar, Jubileuaren espirituak «Kristau-diko Eliza» bat, mundu garaikidean testigantza esanguratsua eskain dezakeen elkarre bihurtzen nola lagun diezagukeen aztertuko dugu, hau gutxiengoa izango bada ere. Urte Santu honek, kristau esperantza fedean oinarritzen dela eta karitatearen jardunean adierazten dela gogoratzen digu, Eliza unibertsalago eta ebanjelizatze gogo handiagoko baterantz bultzatuz. Kristautasunak bere lehen mendeetan izan zuen hedapen nabarmenaren gakoak aztertuko ditugu, ez iraganeko metodoak kopiatzeko, baizik eta gure oraina argituko duten orientabideak aurkitzeko. Bereziki, kristau identitate argi eta esanguratsua sortzearen garrantzian sakonduko dugu, munduaren erdian zorientasunak gauzatuko dituzten elkarre biziak inspiratzeko gai izango dena. Irrikatzen dugun elkarteko berrikuntza honen susturriak sines-tedun bakoitzaren bihotz-berritze pertsonalean daude: hemen proposatzen diren eraldaketak gure bizitzan aldaketarako gonbidapen gisa onartzen baditugu soilik izango dira posible. Hori dela eta, orrialde hauek bihotz-berritze pertsonalaren gakoarekin irakurtzera animatzen zaituztegu, Garizumako espirituak eta Jubileu Urtearen graziak Kristoren jarraipen benetakoagoa egiteko eraldatu behar diren gure bizitzako alderdiak ezagutzen lagun gaitzaten.

4. Jubileu giroko hausnarketarako eta bihotz-berritzeko dei hau pixkanaka eraikitzen da. Lehenik eta behin, bizitzen ari garen trantsizioaz eta horrek eliz bizitzarako dituen inplikazioez ari gara. Gero, etorkizuna prestatzen lagunduko diguten Bibliako interpretazio-gako batzuk garatuko ditugu. Eliza pri-

mitiboaren esperientzia aztertzeari ekingo diogu ondoren, batez ere Jainkoak bere erara eta bere garaietan jokatzen duelakoan, bizimodu erakargarria duten elkarteak eratzeko ahalmenari dagokionez. Elementu hauek Kristok bere Elizari eskatzen dion eta mundu honek behar duen kristau testigantzaren gakoak identifikatzen lagunduko digute. Azkenik, gure elkarteak edertasunaren eta Ebanjelioarekin batera iristen den itxaropen handiago horren bereizgarri izan daitezen sakondu nahi ditugun eliza berrituaren ezaugarri batzuk aipatuko ditugu.

5. Gure asmoa ez da arazo komplexuetarako errezeta sinpleak eskaintzea, baizik eta bereizmen pertsonal eta elkartekoaren gakoak proposatzea, Jubileuko Garizuma honetan berrikuntza ebanjelikorako aukera paregabe gisa bizitzen lagunduko digutenak. Orrialde hauek irekitasun eta itxaropen espirituz irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, otoitz eginez eta bertatik geure burua erkatuz, historian zehar bere Eliza sostengatu duen Jaun berak gaur egun ere gure artean jarduten jarraitzen duelakoan, bereziki 2025eko Urte Santua irudikatzen duen bedeinkapen bereziko garai honetan.

I. «KRISTAUDIKO ELIZAZ» HARAGO

6. Garizumak gure pentsamendua, sentimendua eta jokabidea aldatzera gonbidatzen gaitu. Ebanjelioak premiatzen gaitu: «*Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei*» (Mk 16,15). Misio hori berariazko moduan gauzatu behar da garai eta leku bakoitzean, Berri Ona iragartzen den inguru-nearen berezko ezaugarriak ezagutuz eta onartuz. Historian zehar, kristau-elkarteek Jesusen begiradaz begiratu nahi izan diote errealitateari, bere buruari galdetuz nola jokatu lukeen Jesusek era askotako egoeretan. Gaur egun bost kontinenteetan kristautasuna garatzen den egoeren aniztasuna, testuinguru oso ezberdinetan egokitzeko eta presentzia esanguratsua izateko gaitasun horren lekuko da. Hau da Elizaren katolikotasuna.

7. Fede-elkartearen eta bizi den ingurune sekularraren arteko harremana testuinguru bakoitzeko inguruabar zehatzek baldintzatzen dute. Harreman horretan eragina dute, besteak beste, sinestunen elkartearen tamaina erlatiboak, kristautasunak eskualdean izan duen ibilbide historikoak eta haren eragin kulturalaren eraginak, Elizaren eta estatuaren arteko harremanaren historiak eta, bereziki, erlijio-askatasunaren egoerak.

8. Europak kristautasunaren arrasto sakona darama bere historian eta identitatean. Gure erlijio-tradizioaren ezaugarriak nonahi ikus daitezke: jai-egutegian, artean, arkitekturan eta kultura-adierazpen gutxi-asko esplizituetan. Hala ere, Europako

pentsamendu nagusiaren eta kristauen mundu-ikuskeraren arteko aldea gero eta nabarmenagoa da.

9. Europa izan zen modernitatearen sorlekua. Bere lurraldean, arrazoimen instrumentalean oinarritutako pentsamolde berri bat ernatu eta loratu zen, garapen zientifiko eta teknologikoari hasiera emango ziona kolonialismoaren eta eragin kultural eta hezitzaile oso markatuaren bidez globalki hedatu baino lehen. Europako modernitate horrek aztarna kristau sakona gordetzen du, eta hori agerikoa da bere adierazpenik sekularizatuenetan ere.

10. Pentsamendu sekular garaikidea, askotan kristautasunaren aurka definitzen bada ere, hein handi batean kristauen antropologia eta kosmobisio sozialaren oinordekoa da. Europako modernitatearen funtsezko balioek, hala nola pertsona bakoitzaren duintasun berdinak, guztien ongaiaren bilaketak edo ahulenen aldeko kezkek, tradizio judu-kristauan dute jatorria, eta aurreko kultura greko eta erromatarretatik kanpoko kontzeptuak dira. Gizarte-aurreapenean fedea izatea bera ideal kristauen sekularizazio gisa uler daiteke.

11. Erreforma protestanteak eginkizun erabakigarria izan zuen eraldaketa kultural horretan, pentsamendu kritikoa eta, agian, nahi gabe, indibidualismo modernoaren haziak erein baitzituen. Biraketa horrek arrazoimen instrumentalaren gorakada eta horren ondorioz munduaren desakralizazioa erraztu zituen, behatzen duen subjektuaren eta behatua den errealitatearen artean erlazio berri bat ezarriko zuen zientzia bati bide emanez, zeina orain aztergai huts bihurturik baitago.

12. Europaren «arima kristauari» buruzko eztabaidak, konplexua eta sakona izan arren, historikoa dirudi gaurkoa baino. Iraganean ukaezina zen kristau herentzia horrek galdu egin du gure oraina interpretatzeko eta gure etorkizuna bideratzeko

gaitasuna. Egungo erronkei erantzuteak iraganeko garaiak berrezartzeko irrika nostalgikoa baino gehiago eskatzen du. Horrelako eginkizun bat porrotera bideratua dago, Europan kristautasunak sozialki bideratzen duen eginkizuna sakonki ahuldu baita.

13. Hala ere, prozesu hau ezin da besterik gabe beste kontinente batzuetara hedatu. Sekularizazioaren esperientzia europarra, esanguratsua izan arren, ezin da eredu unibertsaltzat hartu, erlijioaren eta sekularitasunaren arteko lotura ulertzeko. Bere berezitasuna prozesu honen izaera konfrontatiboan datza: sekular izatea ez zen osagarri bezala sortu, erlijioaren alternatiba bezala baizik, pixkanaka lekua irabaziz, ikuspegi nagusi bezala ezarri arte. Berariaz Europakoa den ibilbide horrek bi ondorio garrantzitsu ekarri ditu: aurrerapen sekularrak erlijioa gainditzea edo, gutxienez, ahultzea dakarrelako uste zabaldua, eta etnozentrismo iraunkorraren ondorioz, Europako prozesua aintzat hartzeko joera, ikuspegi horretatik atzeratuago leudekeen beste kultura batzuentzat ere ezinbesteko bidea delakoan.

14. Joera globalek ez dute hipotesi hori berresten. Munduko beste eskualde batzuk modernitatearen eta erlijioaren arteko harreman eredu ezberdinak garatzen ari dira, mendebaldeko Europan gertatzen ari dena zentzu askotan berezia bilakatuz eta, beraz, ez ditu harreman konplexu horren aukerak agortzen. Benedikto XVI.aren analisisian, nolabaiteko modernitateak giza autonomia baieztatzeko jainkotasuna alde batera utzi behar dela auresuposatzen du, «Jainkorik ez balego bezala» jokatzuz (*etsi Deus non daretur*)¹. Egia esan, guztiz kontrakoa da. Jainkoa baieztatzen den lekuan baino ez da bermatzen gizakiaren duintasuna bere osotasunean defendatzea.

¹ BENEDIKTO XVI.a, *Kulturarako Aita Santuaren Kontseiluaren Batzar Orokorriari Mintzaldia* (2008ko martxoaren 8).

15. Gure inguru hurbilean, katolizismoa kulturarekin eta botere politikoarekin sakon lotuta egon da, gutxienez, Errekonkistaren amaieratik. Elizaren zabalkundea Latinoamerikan historia honen atal bereziki esanguratsua da. Berrikiago, Espainiako gerra zibilaren amaierak eta erregimen frankistaren hamarkadek elizaren eta munduaren arteko harremanaren eredu eztabaidagarria eratu zuten, eta horren ondorioak, batzuk negatiboak, oraindik sumatzen dira fededunen nahiz Elizaren aurkako pertsonen pentsatzeko eta erreakzionatzeko moduan.

16. «Tronuaren eta aldarearen» –nasionalkatolizismoaren– arteko aliantza hori, hainbat hamarkadatan Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak Espainian definitu zituen, eta, ondorioz, Elizaren eta munduaren arteko harremanaren modua, iraganekoa da, argi eta garbi. Demokraziaren etorrerak eraldaketa soziala ekarri zuen, hasieran motela, baina nabarmen bizkor-tu da XXI. mendean. Aldaketa bataio, sendotza eta ezkontzen gutxitze hutsa baino askoz gehiago da. Benetako *tsunami* kultural baten aurrean gaude, kristau antropologia eta mundu-ikuskeraren funtsezko elementu asko arrotz eta ez oso erakargarri bihurtu dituen: elkartearen funtsezko balioa, sakrifizioaren eta konpromisoaren zentzua, leialtasunaren, eskaintzaren, hainbat gauzari uko egitearen garrantzia, gorpuztasunaren eta biologiaren erreferentzia saihestezina, geure burua gizaki gisa ulertu nahi badugu. Bereziki antropologiari dagokionez, gero eta nabariagoa da beste ikuspegi eta sentsibilitate batzuekiko distantzia eta kontrastea.

17. Eraldaketa horren handitasunak segurtasunik ezaren sentsazioa sortzen du pertsona askorengan, eta larritasuna ere bai; beste batzuek, berriz, sutuki ospatzen dute orain dela gutxira arte oso zabalduak ziren ideiekiko haustura. Lehen mundua eta giza harremanak azaltzen zituzten ikusmoldeek krisi orokorra

bizi dute. Goitik behera aldatu da garena ulertzeko eta historian kokatzeko dugun modua. Pentsaezintzat edo urrunekotzat genituen fenomenoak, zientzia-fikziozko eleberri distopikoen xede zirenak, aukera hurbil gisa agertzen dira orain. Etorkizuna gero eta zalantzazkoagoa iruditzen zaigu. Duela gutxi arte naturalizat eta onuragarritzat jotzen ziren gauza asko (familia, elkartasuna, lotura sozial sendoak...), jada ez dira horrela kontsideratzen zirkulu oso zabaletan.

18. Batzuek kontsolamendua bilatzen dute historia zikloka mugitzen delako ideian, mutur bat jo ondoren, ezinbestean aurreko posiziora errebotatzen duen kanpai baten mihia bezala. Irudi hau sinplista samarra da, agian. Inork ezin du arrazoiz espero, aurreikus daitekeen etorkizunean, kristautasunak gure gizarte-ingurunean posizio globalki orientatzailea berreskuratuko duenik. Ez dago norabide hori seinalatzen duen zeinurik. Ezin gara iraganerako itzulera baten ilusioan babestu, egoera hau iragankorra izango delakoan itxaroten egonez. Kristau elkarteak gaur egungo errealitatea onartu behar du eta mundu berri baterako bere ekarpena birpentsatu behar du, non gaur egungo joerak indartu egingo diren datozen hamarkadetan gutxienez.

19. Oinarrizko uste bikoitz batek bideratu behar du gure bidea: Jaunaren aginduari eta borondateari diogun leialtasuna batetik eta, Berak gurekiko duen leialtasunaren ziurtasuna bestetik. Ebanjelioak gogorarazten digun bezala: «*Bilatu lehenbizi Jainkoaren erreinua eta beronen zuzentasuna*» (Mt 6, 33), gainerakoa gehigarri gisa etorriko delakoan, ez modua, ez eguna, ez ordua ziurtasunez jakin gabe. Gure funtsezko nortasuna eta bokazioa «Jainkoaren herri» izatea da, eta hortik birpentsatu behar dugu munduarekin dugun harremana.

20. Maiz gertatzen da Elizaren existentzia zuritu nahi izatea justizia sozialari egindako ekarpenagatik edo mundua hobetzeko duen gaitasunagatik. Egia da irrika eta helburu horiek garrantzitsuak direla kristau elkartearentzat. Hala ere, ez dira bere misioaren oinarria. Gure izateko arrazoia gure sineste sendoen egian datza, beraiekin koherentzian bizitzeko dugun konpromisoan, horiek konpartitzeko eta lurreko herri guztiei ezagutarazteko Jaunaren aginduan eta gauza horiek lortzeko Jainkoaren laguntza eskatu behar dugula ezagutzean. Frantzisko Aita Santuak datoren Jubileu-urtea buru irekiarekin eta uste oneko bihotzarekin bizitzera gonbidatzen gaitu. Eliza Kristo Berri On gisa mundura eramateko existitzen da, Eliza bera munduarentzako salbamen sakramentu bihurtuz, inoiz ez bere kontra edo bera gabe. Honela dio Benedikto XVI.ak: «*Elizak, gutako bakoitzak, mundura eraman behar du albiste pozgarri hau: Jesus Jauna dela; Harengan haragi bihurtu direla Jainkoak gizon eta emakume bakoitzarenganako eta gizateria oroarenganako duen hurbiltasuna eta maitasuna*»².

21. Gure nortasunarekiko leialtasun honek, dudarik gabe, eragin sozialki positiboak sortuko ditu, Jainkoarenganako fedea, nahitaez, lagun hurkoarenganako zerbitzuarekin loturik dagoelako. Onartu beharko ditugu sortuko diren tirabirak eta eztabaidak ere, Kristok berak bizi izan zituelako eta iragartzen dizkigulako: «*Zorionekoak zuek, Nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean*» (Mt 5, 11).

22. Kristauek berezko nortasuna eta misioa dute, eta ezin dira geratu munduak baliotsutzat edo onargarritzat jotzen duenaren mende. Jesusen bizitza eta proiektua islatzera konpro-

² BENEDIKTO XVI.a, Erromako elizbarrutiaren eliz Batzarraren Irekierako hitzaldia (2011ko ekainaren 13).

metitzen gaituen gure misio bereziari leial izanez bakarrik, lekukotza benetan esanguratsua eskaini ahal izango dugu egungo testuinguruan. Gure presentziaren eragin soziala, garrantzitsua bada ere, funtsezko leialtasun horren arabera izango da beti.

2. SALAKETA EDO LEKUKOTASUNA

23. Jesusen adierazpenak «*Nirekin ez dagoena nire aurka dago; nirekin biltzen ez duena sakabanatzen ari da*» (Mt 12, 30) badirudi zatiketa nabarmena ezartzen duela Jainkoaren kausaren lagun eta etsaien artean. Hala ere, baieztapen hau kontu handiz interpretatu behar da, misio kristauaren konplexutasuna bandoen arteko liskar hutsera murriztuko duen ikuspegian ez erortzeko. Hasteko, aipatutako hitzordua beste batekin bateratu behar da, itxuraz kontraesankorra dena: «*Gure aurka ez dagoena gure alde dago*» (Mk 9, 40). Izan ere, fededunen elkartean eta munduaren arteko harremana bi poloren artean ibili da histori-koki: aurrez aurre jartzen duen salaketa eta eraldatzen duen lekukotasuna. Bi ikuspegi horiek, bere sustrai biblikoak eta inplikazio praktikoak argitzeak egungo munduaren erdian kokatzeko modurik ebanjelikoena bereizten lagunduko digu.

Lagun eta etsai

24. Fededunen elkartean eta munduaren arteko harremana bi eratara uler daiteke. Lehena, «lagun eta etsaien dinamika» dei genezakeena, premisa sinple batetik abiatzen da: Jainkoak herri bat aukeratu du eta bere ondoan borrokatzen da mundu honetako liskarretan. Ikuspegi honek aurrez aurre dauden bandoetan banatzen du errealitatea: Jainkoaren lagun eta etsaiena. Lehenak indartzea eta bigarrenak ahultzea, baita ahal izanez gero

baliogabetzea ere, da egin beharrekoa. «Ezeztatzearen» tentaldia argitzen da hemen, gariaren eta irakaren Itun Berriko parabolaren oihartzuna aurkitzen duena. «*Maisu... Joango al gara iraka biltzera?*» (Mt 13, 28).

25. Hitzez hitz eta modu isolatuan interpretatutako Itun Zaharreko hainbat pasartek, ikuspegi hori bermatzen dutela dirudi. Gizarte-banaketak bandoen arteko borroka gisa ulertzeko modu horrek, hainbat dinamika historiko eta sozial betetzen ditu: nazioen arteko gerrak eta identitate-gatazkak, batetik, eta gure demokrazietan egiten den eguneroko gatazken kudeaketa mediatikoa, bestetik non titularrek eta informazio partzialek gatazkak areagotzera jotzen duten. Norgehiagokaren eta ñabardurarik gabeko epaiketaren logikak eremu pribatua ere hartzen du, garrantzak bihur daitezkeen oinordetzengatik familia-gatazka batzuek agerian uzten duten bezala.

26. «Gu haien aurka» pentsamoldea funtsezko uste batean oinarritzen da: gure bandoak arrazoia du eta jainkozko be-deinkazioa du borroka zurrizko. Konfrontaziotik elikatzen den fedea da, aurkariaren karikatua egitean eta benetako nahiz asmatutako tentsioetan, eta arrazoizkoak edota saihestezinak diren behin eta berrizko liskarretan, sostengatzen dena.

27. Bere muina Jainkoa –edo arrazoia, edo egia, edo dena batera– gure alde dagoelako ziurtasuna da, eta horrek edozein bidetatik aurkariari aurre egitea justifikatzen du. Auzia laster ideien konfrontazio hutsetik harago doa. Desadostasunen ondorioz, emozio biziak sortzen dira berehala, eta alde ezberdinek aurre egiten diete gure uste sendoak defendatzen dituztenei edo haien kontra jarduten dutenei.

28. «*Ba ote da lurrean Israel zure herria bezalako besterik?*» (2 Sam 7, 23a). Berezitasun-baieztape hori, hitzez hitz eta kontra-

pisurik gabe ulertuta, atseingarria da, aurkari izan litezkeeneko nagusitasun moralaren sentimendua, aitortua edo ezkutuan sentitua, justifikatzen baitu. Ez da kasualitatea gizakiok onartzen dugunagatik baino gehiago errefusatzen dugunagatik definitzea geure burua, eta poz handiagoa aurkitzen dugu kritikatzean, beste pertsona eta ikuspuntu batzuetan positiboa dena balioestean baino. Joera horren indarrak jatorrizko bekatuaren errealitatea berresten duten giza izaeraren alderdiak agerian uzten ditu.

29. Ikuspegi honetatik, Jainkoaren bandokoa izateak garai-pena bermatu beharko luke. Hala ere, Israelen historiak errealitate askoz konplexuagoa erakusten du: hautatutako herriak etengabeko porrotak jasaten ditu indar nagusien aurrean –asiriarrak, babiloniarak, persiarrak, heleniarrak eta erromatarrak–. Bibliak herriaren desleialtasunari egozten dizkio gorabehera horiek, nahiz eta, nolabaiteko ironiaz, ahultasun militarra ere faktore garrantzitsua zela esan genezakeen. Herri-jakinduriak umorez adierazten du: «sarrazenoak etorri eta jipoitu egin gintuzten, onak baino gehiago badira ditu Jainkoak gaiztoak laguntzen». Kristok berak ikuspegi pragmatikoagoa iradokitzen du, gudaldian sartu aurretik norberaren eta besteen indarrak neurtzea gomendatzean (Ik. *Lk* 14, 31).

30. Laburbilduz, lehen ikuspegi horrek munduaren konplexutasuna «gu haien aurka» dinamikara murrizten du. Hainbeste gertaera historikotan nagusi izan den boterearen logika da, menderatze-ariketa bat, sarritan herrien gaineko tirania bilakatzen dena eta Kristok Ebanjelioan esplizituki salatzen duena (Ik. *Mt* 20, 25). Pasarte hau aipatuz dio Frantzisko Aita Santuak: «*Zuen artean ez da horrela gertatu behar: esamolde honetan Elizaren misterioaren bihotza bera erdiesten dugu*»³.

³ Frantzisko, *Mintzaldia Gotzainen Sinodoaren erakundearen sorreraren 50. urtemugan* (2015eko urriaren 17).

Eraman oneko lekukotasuna

31. Bada fededunen elkartearen eta munduaren arteko tirabirak ulertzeko beste modu bat: testigantza pairakorraren dinamika, Itun Zaharrean zein Berrian presente dagoena. Herodesen eta Jesusen arteko topaketak ederki erakusten du hori. Profeta baten aurrean, Jainkoaren mezulari baten aurrean edota mendeku bila dabilen zigortu baten aurrean ote dagoen ez dakien Herodes nahasirik geratuaren aurrean, Jesusek isiltasun esanguratsu batez erantzuten die bere galdera bitxiei eta idazlari eta fariseuen salaketei (Ik. *Lk* 23, 8-10). Portaera honek, arraroa gertatzen bazaigu ere, funtsezko egia bat erakusten digu: Jesusen Jainkoa giza bandoez harago doa. «*Erdiminetan intzirika dagoen*» kreazio guztiaren Jauna da (*Erm* 8, 22), eguzkia aterarazi eta euria zuzenen nahiz bidegabeen gainera bidaltzen duena (Ik. *Mt* 5, 45).

32. Are gehiago, Jainko honek harritu egiten gaitu etsaiak maitatzea eta gaizkiaren orde z ongia itzultzea eskatzen digunean, «*bera ona baita esker txarreko eta gaiztoentzat*» (*Lk* 6, 35). Fede honek zeharo aztoratzen du gure giza logika: nola bihotz-berrituko dira gaiztoak Jainkoa haiekin ona bada? Zein Jainkok egiten dio uko zintzoen eta gaiztoen artean bereizketa egiteari? Askok nahiago lukete gure lurretara euri gozoa bidaliko lukeen Jainkoa, etsaia zigortu eta lehorte kiskalgarrietan akabatu bitartean.

33. Egia esan, Itun Berriak taldeen arteko erkatzeak ezartzen dituzten testuak ditu: birjina zentzudunak eta zentzugabeak (Ik. *Mt* 25, 1-13), langile arduratsuak eta arduragabeak (Ik. *Mt* 25, 14-30), ardiak eta antxumeak (Ik. *Mt* 25, 31-46). Hala ere, alderaketa horien helburua ez da «zuzenen» eta «bidegabeen» arteko konfrontazioak sustatzea, Jesusek aldeko erabaki pertsonala hartzeko premia azpimarratzea baizik.

34. Jesusen fede honetan kritikoena da onartzea funtsezko arazoa ez direla besteak, norbera baizik. «*Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten du*» (Lk 6, 45). Hau edozein Garizumatako osagai nagusia da. Kristok etengabe deitzen gaitu garenaren egian bizitzera, ez izan nahi dugunarenean: harrokeriarik gabe, norik bere burua engainatu gabe, eguneroko tentsio eta zailtasunen erdian beti hauskorra den maitasuna saiaturik landuz. Gure misioa munduari testigantza baliotsua eskaintzea da, ez konfrontaziotik, baizik eta bizi koherentziatik eta horrela gizarte integratuago baten alde egitea. *Fratelli tutti* idatzian Frantzisko Aita Santuak proposatzen duen *adiskidetasun soziala da*, uste sendo bat aurreuposatzen duena: «*batasunak gainditu egiten du gatazka*»⁴; horrek zubiak eraikitzea eta pertsona bakoitzaren balioa aitortzearen nahia dakar, altxatzen tematzen garen hesi edo harresietatik harago.

35. Azken batean, Jesusek bihotz-berritzeko egindako deian, benetako etsaiak gure izena darama. Besteren begian lasto-izpia edo habea seinalatuz entretenitzen denak (Ik. Mt 7, 3-5) bere etxeaz arduratzeko duen ezintasuna baino ez du agerian uzten.

Jonas justiziazale zorrotza eta Jainkoaren ironia pairakorra

36. Erraza da sinplifikatzea. Erraza da esatea gatazkaren eta konfrontazioaren estrategia Itun Zaharrarena dela eta pazientziarena Berriarena. Baina Itun Zaharrean ere aurki ditzakegu Jesusek erakusten dituen Jainkoaren ezaugarri nabariak. Gertara hau Bibliako kontakizun bat aipatuz ilustratu nahi genuke, Jonasen historia, Itun Berriak baieztatu eta finkatuko duen berritasuna islatzen duena.

⁴ FRANTZISKO, *Fratelli tutti* Gutun entziklika (2020ko urriaren 3), 245.

37. Jainkoak Ninivera, asiriaren hiriburura, bihotz-berritzea hots egitera joateko eskatu zionean, Jonas lasterka irten zen. Batek pentsatuko luke ihes hori agindutako misioaren emaitzaren beldurrez izan zela, baina, testuak berak dioen bezala, arrazoia oso bestelakoa da. Jonas beldur da, baina ez da bere bizitza arriskuan jarriko ote duen beldur. Jainkoa ninivetarrak barkatzea ekidin nahi du Jonasek. Bihotz-berrituak ala ez, hilik nahi ditu, suntsituak, erraustuak, ezereztuak.

38. Historiaren lehen zatia aski ezaguna da. Jonasen ihesak porrot egin du, eta, arrain handi batek bere ahotik itsasertzera bota ondoren, profetak obeditu eta Niniven bihotz-berritzearen predikua egin besterik ez du. Eragin handia du prediku horrek, arrakatsuenetakoa izan da historian zehar. Hiri osoa zakuz janzen da eta baraualdiari ekiten dio: erregeak eta bertako biztanleek bizitza aldatu eta Jainko bakarrari entzutea agintzen dute. Eta Jonasen beldurra zena gertatu egiten da: Jainkoa errukitu egiten da eta hiria ez suntsitzea erabakitzen du. Jonas, poztu beharrean, tristuraz betetzen da eta halako haserrea du, non Jaunari eskatzen baitio bera hiltzea, bere ihesaren arrazoia anbiguotasunik gabe azalduz (Ik. *Jon* 4, 1-3).

39. Ez da erraza konbikzioak aldatzea, konfrontazioa elikatzen dutenen bandoa uztea, batasun bideak bilatzea bideratzen dutenekin bat egiteko. Ez da erraza onartzea Jainkoak benetan gehiago dakiela eta gure erantzun irrazionalak gainditzeko eskatzen digula. Utz diezaigun zerbait erakusten mundu honek behar duen fedeari buruz.

40. Gertakari eder eta barregarri batean amaitzen da Jonasen historia: Jainkoa hurbiltzen zaio, lasaitu nahian, eta galdetzen dio: «*Ba al duzu zertan horrela sumindu?*» (*Jon* 4, 4). Hura kontsolatzeko, akain-belar landare bat hazi arazi zuen, eguzki jasanezinetik arinduko zuena. Jonas adoretu zen, baina Jainkoak gau horretan bertan gaixotu zuen landarea, eta, oraindik profetaren egoera la-

rriagotu nahian, haize kiskalgarria bidali zuen hurrengo egunean. Jonas, ahultzen ari dela, bere onetik aterata heriotza hel dakion nahi du. Jainkoak berarengana itzulirik bihotz-berritutako Ninive herriaren aurrean izandako erantzuna berrikustera gonbidatzen du: *«Landare honek ez dizu lanik eman, zuk ezer egin gabe hazi da; egun batetik bestera sortu eta ihartu da. Hala ere, zuk errukia agertu diozu. Eta Nik ez ote diot errukia agertuko Ninive hiri handiari, bertan ongia eta gaizkia bereizten ez dakien ehun eta hoge mila gizaki baino gehiago eta ezin konta ahala abere bizi delarik?»* (Jon 4, 10-11).

41. Horrela amaitzen da kontakizuna. Ez da inon ageri profetak bere haserrea gainditu zuenik, baina suposatu nahi genuke baietz, azkenean, Jonas bigundu egin zela eta bihotz-berritu zela hainbeste bihotz-berritze lortu zituena. Atal hau bihotz-berritutako Jonasean izan zitekeen otoitz batekin amaitzen dugu. Honela esango genuke: *Goresten zaitut, Jauna, gizadia zure antz eta irudiko sortu zenuena, gauza guztiak eta nazio guztiak sortu zenituena, gores-ten zaitut Zu, errukiaren Jainkoa, sortzen ditugun harresien gainetik egunero altxatzera gonbidatzen nauzuna, hondar gainean hegan egi-tera, nekatu gabe markatzen ditugun marra banatzaileak ezabatuz.*

3. LURRAREN GATZ IZATEA

42. Lehortek sorrarazitako baso-sute batek sekulako txiki-zioa eragin dezake. Egoera kritikoa horietan, miresgarria da suari aurre egiteko eta segurtasuna berrezartzeko beren bizitzak arriskatzen dituztenen ausardia. Suhiltzailearen lanak oreka delikatu bat eskatzen du: sutera behar adina hurbildu behar du sua itzali ahal izateko, baina baita sugarrek jo ez dezaten behar den distantzia mantendu ere. Gertutasunaren eta arretaren arteko tentsio hori irakaspen gertatzen da fededunontzat, mundukoa izan gabe munduan egoteko egiten zaigun deia argitzen baitu.

43. Elizak suhiltzailearen antzeko erronka bati aurre egiten dio: ezin dio uko egin kulturarekin hitz egiteari, ezta hau eraldatzeko eta gizatiarra goa bilakatzeko duen bokazioari ere. Hala ere, mundutakeriatik babestuko duen distantzia kritikoa mantendu behar du, Jesusen elkarte islatzeko eta izateko gure identitatea eta gaitasuna desegin dezakeen tentaldi isil baino indartsua baita.

Eragin edo gonbidatu

44. *Lurraren gatzaren* metaforak (Ik. *Mt* 5, 13) argi eman ohi dio Elizaren eta gizartearen arteko harremana ulertzeko dugun moduari. Mundu sinesgogor batean erdian egindako kristau testigantzaz gogoeta egitean, «gatz eta argi» irudi hori etengabe agertzen da. Interpretazio arruntena, gizarte osoan ahul bada ere positiboki eragiteko dei bat bezala ulertzen da: kristauak, indibidualki eta kolektiboki, giza bizitzari zaporea ematen dioten eragile moral gisa arituko lirakeke. Ikuspegi horretatik, gatzak eltzea bere osoan hobetzen duen «zaporetzaile» gisa funtzionatuko luke, edota gainbehera aurreikusten duen «kontserbatzaile» bezala.

45. Baina, agian, hain zabaldua dagoen interpretazio horrek ez du Jaunaren mezuaren muina hartzen. Jesusek esaten duenean *zuek zarete lurraren gatza*, agian Jesus ez da ari gizarte osoarentzat ekarpen lauso bat eskatzen, baizik eta kristauak munduari eskaini behar dioten zapore bereizgarria gordetzeko beharraz ari da. Kasu honetan, enfasia kontraste-identitate bat segurtatzean legoke, Jainkoaren denbora aurkitu dutenen aberastasuna esperimentatzera beste batzuk gonbidatzeko. Kristok eskatuko lioke fededunen elkarteari eta ikasle bakoitzari Erreinuaren «zapore» berezi hori gauzatzeko, munduaren erdian presente eginez. Oraindik fededunen elkarteko ez izan arren, testigantzaren indarrez zapore bereizgarri hori ezagutu dezaten bititza eta desberdinta-

suna agertzea litzateke funtsezkoa, erosoak diruditen baina gezak diren proposamenen alternatiba baliotsu bezala hatu ditzaten.

46. Beraz, kontua ez litzateke nolabait «eragitea», berariaz «gonbidatzea» baizik. Botere-dinamikek, interes partikularrek eta hutsune espiritualak menderatuta Jainkoaren proposamenetik at bizi den mundua irudikatzen du hemen «lurrak». Kristau elkar-tearen lehen misioa ez litzateke mundu hau osatzea, pertsonen bizitza eraldatua besarkatzeko arrazoiak eskaintzea baizik. *Lurraren gatz* izatea, beste ezeren aurretik, dei erradikala da diszipuluarentzat, eta zeharka baino ez du eragingo beharrezko gizarte-eraldaketa. San Paulo VI.ak *Evangelii nuntiandi* idazkian zuhurki adierazi zuen bezala, prozesua progresiboa da: «*lehenengo gauza Ebanjelioa koherentziaz bizitzea da, gero beste pertsona batzuk elkartearekin bizipena egitera gonbidatu ahal izateko, horrela Kristoren mezuarekiko atxikimendu bizia eta elkartekoa handituz*»⁵.

47. «Kristau presentzialen» eta «bitartekaritza-kristauen» arteko eztabaida klasikoan, hermeneutika jakin batek gatz- eta argi-sinboloak erkatuz erabiltzen zituen posizio baten edo bestearen argibide gisa. Gure azterketan, ordea, bi sinboloek bat egiten dute ideia berean, eta argiaren parabolak gatzari buruz esandakoa osatzen du. Iluntasuna modu orokorrean xahutu baino gehiago, argiak nabarmentzen du ingurune sozialarekin erkatuko den elkarte baten beharra. Gauean itsasargia bezala, argiak ikusgarria izan behar du, ilunpetan bizi direnak beregana erakartzeko. Bi irudiek, gatzak eta argiak, ikuspegi bera sustatzen dute: elkarte esanguratsu batena, zeinak, bere lekukotzaren sendotasunagatik, bizitza ulertzeko modu erakargarri bat aurkezten baitio munduari gizateria-arentzat.

⁵ SAN PAULO VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolikoa (1975eko abenduaren 8), 21-23.

Zoriontasunak gauzatu

48. Gatzaren eta argiaren metaforak (*Mt* 5, 13-16) Mendiko Hitzaldian estrategikoki kokatzea ez da kasualitatea: Jesusen jarraitzaileek Jaunak iragartzen duen justiziarik menegiteko eta erantzuteko modua irudikatzen dute. Metafora horiek erabat ulertzeko, zoriontasunekin eta hauek justiziaz duten ikusmoldearekin lotu behar ditugu; justizia horrek idazlari eta fariseuen justizia gainditu behar du (*Mt* 4, 20). Zoriontasunek justizia goren horren ezaugarriak deskribatzen dituzte. Gatza eta argia izateak bertute horiek gure eguneroko bizitzan gauzatzea esan nahi du.

49. Hitzaldiaren amaieran, mezu hori indartzen duten hiru irudi pare daude: bi atek (*Mt* 7, 13-14), bidearen norabidea ongi aukeratzearen beharra azpimarratuz; bi zuhaitzak (*Mt* 7, 15-20), fruitu onak sortzeko premia zehaztuz; eta bi etxeak (*Mt* 7, 24-27), oinarri sendoen gainean eraikitzearen garrantzia irakatsiz, lehenago edo beranduago olatuek eta haizeak eraikin ahulak eraitsiko dituztelako.

50. Irudi horiek bat egiten dute funtsezko egia batean: Jesusen irakaspenak jarraitzea ez da hautazkoa. Ez gaude proposamen gutxi-asko zehaztuen aurrean, eztabaidari irekiak, bestela baizik, erabaki saihestezin, kontziente eta heldu batekin aurre jartzen gaituen bizi-alternatiba baten aurrean gaude: Kristori jarraitu eta bere irakaspenen arabera bizi ala ez. Eta hemen erdizka ibiltzeak ez du balio.

51. Gatzaren eta argiaren metaforak, ezberdinak izan arren, elkarren osagarri dira jarraitzailearen esentzia adierazteko. Bere helburua, mundua zaintzeko edo honengan pixkanaka eragiteko saiakera soil bat baino gehiago da: Erreinuaren errealitate zeharo ezberdina gauzatzea eta adieraztea bilatzen dute. Ikasleek,

beren «zapore» bereizgarriarekin eta beren «erkatze-argiarekin», Jainkoaren botere eraldatzailea islatu behar dute era ikusgarrian, elkarteko kide ez direnak mundu galdu baten gezatasuna uztera gonbidatuz, Kristok bakarrik eskaintzen duen bizi-otorduan parte hartzeko.

52. Bekatu-errealitateek munduari nahiz Elizari eragiten dieten bezala, Ebanjelioak kristau elkarteari ezartzen dizkion eskakizunek ez dute esan nahi, inola ere, kristau elkartetik kanpo elementu baliotsurik ez dagoenik. Aitzitik, giza errealitate eta gizarte-dinamika askotan aitortzen ditugu «Hitzaren haziak»⁶, Jainkoaren presentzia eta ontasunaren ezaugarriak, fededun ez diren pertsona eta kulturetan agertzen direnak. Aitorpen hori funtsezkoa da edozein misio-proiektutarako, manikeismoak saihesteko eta begiak beti zabalik edukitzeko aukera ematen baitigu, «edonondik jotzen duen» eta Berri Ona jasotzeko bihotzak prestatzen dituen Espirituaren ekintza identifikatzeko.

4. LEHEN KRISTAUEN ERAMANPENA

53. Bai Benedikto XVI.ak baita Frantziskok ere behin eta berriz azpimarratu dute «*Elizak ez duela proselitismorik egiten. Askoz gehiago hazten da erakarpenagatik*»⁷. Aipu hori bera errepikatzen du Frantziskok «*Ebanjelizatzeko grina: Fededunaren lehia apostolikoa*»⁸ izeneko katekesian. Gainera, Frantziskok na-

⁶ VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Elizaren misio-ekintzari buruzko *Ad gentes* Dekretua, 15.

⁷ BENEDIKTO XVI.a, «*La Aparecida*» Santutegian egindako Latinoamerika eta Karibeko Gotzainen V. Batzar Orokorren hasierako Eukaristian egindako *homilia* (2007ko maiatzak 13).

⁸ FRANTZISKO, *Katekesia* (2023ko urtarrilaren 11).

barmentzen du Itun Berrian ikusten dela nola «*lehen fededun elkarteetako kideek, ustelkeriaz eta desmasiaz beteriko mundu fedegabe baten erdian bizi arren, ondo zekitela zer ziren pazientzia, tolerantzia eta elkar-ulertzea*»⁹.

54. Lehen kristauak eramanpena funtsezko bertute gisa ulertu eta bizi izan zuten, munduan egoteko bere modua sakonki markatu zuen bertute gisa. Eramanpen hori ez zen etsipen edo pasibotasun hutsa, jarrera bizikor bat baizik, otzantasunez jokatzeko duen eta giza historiaren erritmoak errespetatzen dituen Jainkoa ulertzeko modua islatzen zuena. Alderdi ugaritan agertzen zen: bihotz-berritza behartu gabe ekarte gisa hazteko moduan, jazarpenari errepresaliarik bilatu gabe erantzuteko moduan, katekumenotzaren bidez fededun berriak astiro heztean, identitate berrituak eratzen zituzten kultu-praktiketan, eta fedea hitzekin baino gehiago adibidearekin lekukotzeko prestasunean. «Eramanpen arraro» hori, behatzaile pagano batzuek sumatzen zuten bezala, indar eraldatzaile bat izan zen paradoxikoki, kristautasuna lehen mendeetan harrigarriro hedatzen lagundu zuena. Hau ikertzea ez da ariketa historiko hutsa, gaur egungo munduan dugun presentzia kristaua birpentsatzeko gako balioetsuak eskaintzen baititu.

Kristautasunaren hazkunde azkarra

55. Kristautasunaren historiako fenomeno harrigarriena bat Erromatar Inperioan izan zuen hedapen azkarra izan zen, Konstantino eta Teodosioarekin erlijio ofizial bihurtu baino lehen. Hazkunde honen garairik esanguratsuen Marko Aurelioren agintaldiaren hasieratik (K.o. 161) Konstantino boterera iritsi zen arte (K.o. 306) luzatzen da.

⁹ FRANTZISKO, *Fratelli tutti* Gutun entziklika (2020ko urriaren 3), 239.

56. Ezohiko garapen horrek interpretazio desberdinak eskaintzen dituzten ikerketa ugari sortu ditu, nahiz eta bi alderditan adostasuna dagoen: bere berezitasun historikoan eta hau ulertzeko faktore sozial, kultural eta erlijioso ugarien elkarreragina kontuan hartzeko beharrean. Hazkunde hori azaltzen duten hiru arrazoi nagusi aipatzen dituzte ikertzaileek:

1. Elkartearen indarra. Gainbehera ekonomikoak, ezegonkortasun politikoak eta segurtasunik ezak markatutako Erromatar Inperioan, kristau-elkarteek kide izatearen zentzu indartsua eta mezu itxaropentsua eskaintzen zuten. Proposamen horrek bereziki erakartzen zituen erromatar gizartetik baztertuak edo gogobetueak sentitzen zirenak.
2. Karitatearen testigantza. Karitatearen praktika antolatua faktore erabakigarria izan zen. Alargun, umezurtz, pobre eta gaixoei eskaintako arretak kontraste handia zuen nagusi zen indibidualismoarekin. Benedikto XVI.ak Juliano Apostata enperadorearen († 363) testigantza adierazgarria jasotzen du *Deus caritas est* idazkian: «*Kristautasunean harridura eragiten zion gauza bakarra Elizaren karitate egintza zela... 'Galilearerk' ospea lortu zuten horrekin. Haiiek imitatu behar ziren eta gaingitu*»¹⁰. Aterio baten aitortza honek kristau karitatearen testigantzazko boterea berresten du.
3. Salbaziorako bide argia. Kultuz eta eskola filosofikoz beteriko mundu batean, kristautasunak salbaziorako bide erraz eta koherentea proposatzen zuen. Kritikariek zurruntzat zeukatenak ziurtasuna eta norabidea ematen zituen ziurgabetasun-garaietan. Martirien lekukotasunak erakarga-

¹⁰ BENEDIKTO XVI.a, *Deus caritas est* Gutun entziklika (2005eko abenduaren 25), 24.

rritasun hori indartzen zuen: jazarpenaren eta heriotzaren aurrean zuten ausardiak aurkariak ere hunkitzen zituen, aparteko boterea zuen fedearen indarra agerian utziz.

57. Elementu horiek bat egiteak azaltzen du, neurri handi batean, kristautasun primitiboaren arrakasta. Bere elkarte-bizitasunak, karitatezko praktikak eta salbamen mezu berri baten lekukotasuna emateko ausardiak, mundu paganoaren gainbera moralaren eta gizarte-zatiketaren aurrean alternatiba sinengarria eskaintzen zuten. Jarraitzaileen fede hauskaitza, batzuek sektariorzat kritikatzeko bazuten ere, oso erakargarria zen askorentzat. Kristautasuna, sortzen ari zen doktrina eta praktika bat zen orduan, erantzun berri eta esanguratsuak ematen zituen.

Kristauen 'habitus'-a

58. Alan F. Kreider (1947-2017) historialari menonitak, *Pazientzia*¹¹ obran, kristau elkarteek erromatar gizartean duten eraginari buruzko ikuspegi berritzailea eskaintzen du. Bere analisiaren arabera, kristau elkarteko kide izateak berak *habitus* deitzen zuen bereizgarria sortzen zuen, ohitura sustraitu, xedapen eta praktika indibidual eta komunitario multzo bat, munduaren ikuskera eta fededunen portaera moldatzen zituen, bere inguruarekiko kontraste argia markatuz.

59. Kristau-*habitus* horren erdian, Elizaren bizitza eta hazkuntzarako funtsezkotzat jotzen zen pazientiaren bertutea zegoen. Jasankortasun hori ez zen jarrera pasibo hutsa, Jainkoaren izaera beraren isla baizik, Bere otzantasuna Jesu Kristoren bizitzan eta irakaspenetan agertu baitzen. Paganoak, «eramanpen

¹¹ KREIDER, A. F., *La paciencia*, Ed. Sígueme, Salamanca, 2017.

arraro» horrekin harrituta, hain bizimodu bereizgarria sortzen zuten fedearrekiko jakin-minez eta erakarriak sentitzen ziren.

60. Eraman on hori bizitzako alderdi oso zehatzetan agertzen zen: ondasun materialekiko harremanetan, soiltasuna eta eskuzabaltasuna sustatuz; merkataritza-jardueretan, non kristauak zorrak barkatzeagatik, zintzotasunez jokatzegatik eta auziak saihesteagatik bereizten baitziren; ezkontza-bizitzan, leialtasuna defendatuz, erromatarren permisibitate sexualarekin erkatuz; bihotz-berritzeak behartzeari uko egitean, benetako erabaki askea izan daitekeela ulertuz.

61. Lactanciok (245-325), *Erakunde jainkotiarrak* obran, argi eta garbi artikulatu zuen jarrera hori, benetako erlijioa gogatzearen bidez loratzen dela argudiatuz, eta inoiz ez indarpean: «*Erljioa defendatu egin behar da, ez inor erailez, norbera hilez baizik; ez zorroztasunez, eraman onez baizik; ez gaiztakeriaz, fedez baizik*»¹².

62. Jainko egonarritsu eta maitekor baten isla ziren fededun eredugarrien bizitzen lekukotasuna, kristau fedearen balioaren frogarik sinesgarriena zen.

63. Pertsekuzioari eman beharreko erantzunean lortzen zuten eraman onak bere espresiorik erradikalena. Tertuliano eta san Zipriano bezalako maisuek elkarteari eskatzen zioten sufrimendua jasan zezala errepresaliek tentatu gabe, era horretan Kristo imitatuz. Indarkeriarik gabeko erresistentzia hori, piztue-raren itxaropenak eutsia, kontraste handikoa zen erromatarren berehalako ordainsari eta zigorren kulturarekin.

¹² LACTANCIO, *Instituciones divinas*, IV-VII Liburuak, Ed. Gredos, Madrid, 1990, p. 164

Kutsadurazko hazkundera

64. Rodney Stark (1934-2022) soziologo estatubatuarrak, *Kristautasunaren hedapena*¹³ lanean, gaur egun oso onartuta dagoen tesi bat proposatu zuen: hedapen horren alderdi esanguratsua ez ziren izan konbertsio masiboak, familia- eta adiskide-sareen bidez transmititzen ziren atxikimendu indibidualen prozesu gradualak baizik. Etengabeko «kutsatze» horrek hazkundera esponenziala eragin zuen bi mendetan, eta hedapen-eredu eraginkor bezain harrigarria erakutsi zuen.

65. Kreiderrek prozesu organiko horren ebidentzia ugari ematen ditu. Lehen kristauak ez ziren saiatzen Elizaren hazkundera kontrolatzen edo bizkortzen misio-programa antolatuen edo ebanjelizazio-estrategia esplizituen bidez. Haien jarrerak konfiantza sakona adierazten zuen, Jainkoak, bere garaian eta moduan, pertsonak erakarriko zituelako, elkarre fededunen testigantza isil baina adierazgarriaren bidez. Itxurazko «pasibotasun» hori, egia esan, Jainkoaren ekintzaz fidatzen zen pazientzia aktiboaren adierazpidea zen.

66. Hala ere, Jainkoaren egitasmoarekiko konfiantza horrek ez zuen ezer ez egitea esan nahi. Kristauek euren eguneroko harremanak baliatzen zituzten fede-esperientzia partekatzeko, ez aldarrikapen formalen bidez, baizik eta eguneroko elkarrizketa eta elkarreraginetan bizi testigantzaren bidez. Beren bake-espiritua eta elkarrekiko babesa ezaugarri zituzten elkarre erakarpengune natural bihurtzen ziren horrela.

67. Emakumeek funtsezko zeregina izan zuten hedapen organiko horretan. Kristau-elkarteetan erromatar gizartean baino gehiago balioetsiak ziren haien ekarpenak erabakigarriak izan zi-

¹³ STARK, R., *La expansión del cristianismo*, Ed. Trotta, Madrid, 2009.

ren. Euren eguneroko espazioetatik –etxe eta lanak– benetako misiolari, mezenas eta maistra gisa aritu ziren. Bere erruki eta dedikazio lekukotasuna bereziki eraginkorra izan zen kristautasuna zabaltzeko, lehenik beste emakume batzuen artean eta, haien bidez, gizonei eta belaunaldi berriei.

Kultua, 'habitus' kristauaren eratzaillea

68. Kreiderrek, analisi sekularretan sarritan gutxiesten den elementu bat nabarmentzen du: partekatutako kultuak identitate kristau primitiboaren eraketan duen eginkizun nagusia. Ospakizun horiek fededun ez zirenentzat irisgarriak ez baziren ere, haien indar eraldatzailea nabarmen agertzen zen kristauen eguneroko bizitzan, eta kanpoko behatzaileak hainbeste hunkitzen zituen *habitus* bereizgarri hori eratzen zuten.

69. Asteroko bilerak, izan arratsaldeko bazkariak edo goizeko zerbitzuak, elkarteen bizi-muina ziren. Ez ziren ekintza erritual hutsak, topaketa eraldatzaileak baizik, non Jainkoarekiko harremana elikatzen zen, fedean sakontzen zen eta senide-loturak indartzen ziren. Hiru praktika ziren bereziki esanguratsuak:

- Eukaristia: Jaungoikoarekin eta anai-arrebekin batasuna. Otordu partekatuek, batez ere Eukaristiak, Kristorengan familia zentzua sortu eta indartzen zuten. Hasiera batean, etxeko afari gisa ospatu zirena, goizeko zerbitzu laburragoak bilakatu ziren gero, baina Jainkoarekiko eta fededunen arteko batasun-sinbolismo sakonari eutsiz.
- Otoitza: bizi-elkarrizketa Jainkoarekin. Formalak eta zurrinak ziren otoitz paganoak ez bezala, kristau otoitzak berezkotasuna eta benetakotasuna zituen ezaugarri. Tertuliano, san Zipriano eta Origenesek adierazten duten bezala, fededunek

begiak zabalik eta eskuak goraturik otoitz egiten zuten, beren konfiantza eta Jainkoarekin eguneroko edo ezohiko edozein erronkari aurre egiteko prestutasuna adieraziz.

- Bake-agurra: adiskidetze-ezaugarria. Erromatar kulturatik hartua baina kristautasunean zentzu berria duena, elkar-tearen batasuna adierazten eta sustatzen du. Ohikune formala baino gehiago, Kristorengan guztion funtsezko berdintasuna sinbolizatzen du, desberdintasun sozialak gainditzen dituzten elkarrekiko errespetuzko harremanak sustatuz.

70. Lehen gizaldietako idazkiek praktika horien eragin eraldatzailea berresten dute. *Didaskaliak* azpimarratzen du gurtzak, batez ere Eukaristiak, elkar-tearen izaera moldatzen zuela, bertuteak sustatuz, hala nola, apaltasuna eta behartsuen zaintza. *Hipolitoren Kanonek* azpimarratzen dute ez zela ohikunearen edertasuna konbertituak erakartzen zituena, baizik eta bertan parte hartzen zutenen aldaketa nabarmenak.

71. Azken batean, gurtza kristau primitiboak arragoa zirudien, eta izaera bereizgarria eratzen zuen. Jainkoarekiko eta fededunen arteko topaketa hauek bizitza eraldatuak moldatzen zituzten, benetakotasun-gose den mundu batean itxaropen-argi gisa distiratzen zutenak.

Katekumenotza, ikasle izateko ate estua

72. Hasierako Elizan, katekumenotza ez zen heziketaldi hutsa, baizik eta bide zorrotza, «ate estua» (*Mt* 7,13), beronen bidez kristau nortasuna eratzen baitzen. Urteetan luza zitekeen prozesu hau, «eramanpenaren teologia» baten eredu zen, kristau izango zirenen pentsatzeko eta bizitzeko modua pixkanaka eraldatzen zuena.

73. Katekumenotza erako heziketak benetako konbertsioak denbora eta bidelaguntza behar duelako ustea islatzen zuen. Katekumenoek ez zuten doktrinaren heziketa soilik jasotzen; pixkanaka eraldatutako bizimodua erakutsi behar zuten, ekin-tza zehatzetan islatua, hala nola behartsuen eta gaixoen zaintzan. *Tradizio Apostolikoak* prozesu honen bereizmen zorrotza deskribatzen du; aita-amabitxiak bermatu behar zuten, bai sinesmenak eta baita portaerak ere eraldatuak izan zirela.

74. Prozesuak iraganarekiko erabateko haustura eta identitate berri baten eraketa pazientiatsua zekartzan. Katekumenoek, fedearekin bateraezinak ziren praktikak alde batera uzteaz gain, idolatria edo indarkeriazko lanbideak, esate baterako, kristau-*habitusa* hartzen zuten pixkanaka: kanpo-keinuetatik hasi, gurutzearen seinalea kasu, eta ahulekiko ohiko otoitzarekiko eta eskuzabaltasunarekiko konpromiso sakonetaraino. Ikasle bihurtzen zituen balioen barneratze geldi hori ez zen atxikimendu intelektual hutsa, ohiko pentsatzea, sentitzea eta jardutea osatzen zuen bizi-indarra baizik.

75. Prozesuaren garapena paradoxikoki erakargarria gertatzen zen: sinetsi beharrekoak aitortze hutsetik harago, bizi-aldaketa egiaztagarri baten eskakizunak konpromiso kristauaren seriotasuna erakusten zuen. Horrela, katekumenotza eraldaketa hori posible egiten zuen tresna bizia bihurtzen zen, bizitza betea-goia nahi zuten bilatzaile berriak erakarriz.

5. PARADIGMA BERRI BAT: TESTIGANTZA XUMEAREN INDARRA

76. Europako testuinguruan, kristautasunak mendeetan zehar kultura eta gizartea eratu zuen kosmobisio nagusia izateari utzi dio. Urruntze-prozesu hori, eskualdeen arabera intentsitate eta erritmo ezberdinez agertzen bada ere, errealitate ukaezina da jada kontinente osoan. Egoera berriak, beste garai batetik jasotako eskema pastoralak alde batera uzteaz gain, gure izaeran eta Eliza gisa jarduteko moduan berrikuntza sakona egitea eskatzen digu. Atal honetan, gure elkarteek lasaitasunez eta itxaropenez, nostalgia geldikorrik eta funtsik gabeko beldurrik gabe, onartu behar duten beharrezko eraldaketa horretarako gako batzuk identifikatzen ditugu.

Elkartearen lekukotasuna, gure garairako lehentasuna

77. «Berri Ona lehenik aldarrikatu behar da, lekukotasunaren bidez... lekukotasun hori, berez, Berri Onaren aldarrikapen isila, baina oso argia eta eraginkorra da»¹⁴. Kristau fedearen gizarte-eragina nabarmen aldatu da testuinguru historikoen arabera. Mendeetan zehar, kristautasuna nagusi zen gizarte batean, Elizak «goitik» osatzen zuen kultura, erakundeen eta gizarte-harremanen sare trinko baten bidez. Esparru horretan, kristau-lekukotza santutasunerako dei indibidual gisa ulertzen zen nagusiki, erlijio-identifikazio maila desberdinak zituzten bataiatuen elkarte zabal baten barruan. Eliza eta munduaren arteko bereizketa lausotu egiten zen, kultura orokorra tradizio kristauaz blaituta baitzegoen.

¹⁴ SAN PAULO VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolikoa (1975eko abenduaren 8), 21.

78. Gaur egun, egoera erabat bestelakoa da, eta gauza asko birpentsatzea eskatzen du. Elkarte-lekukotasunaren benetakotasunak berebiziko garrantzia hartzen du orain: benetan garena baino ezin dugu transmititu. Eta «izate» hori ezin da ulertu nagusiki norbanakoaren ikuspegitik, baizik eta elkartearen ikuspegitik ere bai. Funtsezko erronka da elkarre biziak eraikitzea eta sostengatzea, Espirituak eta sakramentu-graziak elikatuta, koherentziaz Jesusen proposamena gauzatuko dutenak, sarritan axolagabea den inguru batean.

79. Elkarte-lekukotasunaren lehentasun horrek argi berriarekin argitzen ditu eztabaida tradizionalak, hala nola «kristau presentzialen» eta «bitartekaritza-kristauen» arteko ustezko dikotomia. Eztabaida horiek esparru kultural homogeen bat aurrerapuzatzen zuten kristautasun testuinguru batean sortu ziren, non fededunak eta fededun ez zirenak partekatutako proiektu humanista batean aurki zitezkeen. Esparru hori erabat aldatu da. Ikuspuntu morala zatitu egin da, eta askok ezinezkotzat edo ez desiragarritzat jotzen dute adostasun etiko unibertsalak bilatzea. «Fede» nagusi berriak, aurrerapena ongizate materialarekin eta garapen teknologikoarekin identifikatzen duenak, jarraitzaile asko ditu, baina behin eta berriz erakusten ditu geroz eta pertsona gehiagoren bizitzari zentzua eta orientazioa emateko dituen muga larriak. Horrek azaltzen du, neurri batean, gazteen artean antsietatea eta zoritxarra areagotzea.

80. Ingurumari horretan, fededunen elkartearen nortasuna indartzea ez da erreazio defentsiboa, gizarteari ekarpen esanguratsua eskaintzeko ezinbesteko beharra baizik. Bere buruari begira bizi den Eliza baten eta zerbitzuan iraulitako beste Eliza baten arteko desberdinketa zaharra sinplista da orain: fedea indartsu landu eta transmititzen duten elkarerik gabe, munduari edozein zerbitzu egitea jasanezina izango da. Elkarteko

testigantzak «izatea» eskatzen du lehenik, «egin» ahal izateko. Eta «izate» horretan, elkarte-erreferentzia gero eta garrantzitsuagoa da.

81. Paradigma erabat aldatu da: kontua ez da gizartea erakunde- eraginetik bideratzea, mundua zerbitzatzen duen Kristoren izatea modu nabarmenean islatzen duten elkarteak eratzea eta elikatzea baizik, bere elkartetik gizartearen onura komunari lagunduz. «Behetik» egindako ikuspegi horrek Elizaren barne-bizitza zaintzen du, ez barnerakoi izan nahian, munduaren erdian testigantza sinesgarria eta erakargarria eskaintzeko ezinbesteko baldintza gisa baizik.

Txikitasunetik lekuko

82. Bavariako irratian 1969an emandako hitzaldiak biltzen dituen *Fedea eta etorkizuna* liburuan, Joseph Ratzingerrek, orduan 42 urteko teologoa zenak, ikuspegi argia eskaintzen zuen Elizaren etorkizunari buruz. Iragarpenak maiz huts egiten dutela dakienaren zuhurtziaz aurkeztu zuen bere ikuspegia. Hala ere, denborak berretsi baino ez du egin gogoeta eta intuizio haiek gure egoerarako duten garrantzia eta egokitasuna.

83. Bere misioa ekintza sozial eta politikora murrizten duen Eliza baten aurka ohartarazten hasten da Ratzinger. Mezu kristaua garai bakoitzeko korrante nagusietara gehiegi egokitzearen arriskuak argitzeko, Parisko Gobel artzapezpikuaren kasu paradigmatikoa ekarri du gogora. Honek, herriarenganako *maitasunagatik jarduten zuela aldarrikatuz eta bere nahiak onartuz*, iraultza frantsesaren ateismoa besarkatu zuen, azkenean Robespierrek gillotinara bidaltzeko, buruzagi iraultzaileak inposatu nahi zuen arrazoiaren gurtza deistaren aurka konspiratzeaz akusatua. Amaiera horren ironiak kristau-nortasuna ezerezteko

arriskuak erakusten ditu, «denborekin mugitzea» bilatuz. «*Ez dugu behar 'otoitz' politikoetan ekintzaren kultua ospatzen duen elizarik. Erabat alferrikakoa da, eta horregatik desagertuko da bere kabuz. Jesu Kristoren Elizak iraungo du, gizaki egin den eta heriotzaz haraindiko bizitza agintzen digun Jainkoarengan sinesten duen Elizak*»¹⁵.

84. Etorkizuna duen Eliza ez da kritikatzeko edota bide erraza hautatzen dutenena: «*Elizaren etorkizuna sustrai sakonak dituztenen eta beren fedearen betetasun hutsetik bizi direnen indarretik etor daiteke eta etorriko da gaur ere. Etorkizuna ez da errezetak bakarrik ematen dituztenengandik etorriko. Ez da etorriko oraingo momentura bakarrik moldatzen direnengandik. Ez da etorriko besteak kritikatu eta beren burua neurri hutsezin gisa hartzen dutenengandik. Bide erosoena bakarrik aukeratzen dutenengandik ere ez da etorriko, ezta fedearen grina saihestu, eta gizakiarentzat exigentea den guztia mina eragiten diona edota bere buruari uko egitera behartzen duena, faltsua eta gainditua, tirania eta legalismoa dela diotenengandik ere... Elizaren etorkizuna, oraingoan ere, beti bezala, santuen zigilurekin markatuta geratuko da berriro... beren bizitzak espazio zabalagoak hartzen dituelako besteek baino gehiago ikus dezaketelako*»¹⁶.

85. Etorkizuneko aldaketen deskribapena bereziki sakona da. Zehaztasun handiz, Ratzingerrek Eliza txikiago baina egiazkoago bat aurreratzen du, bere esentzia berraurkitu eta iraganeko pribilegiorik gabe existitzen ikasi beharko duena. Interresgarria delakoan, hitz gako batzuk azpimarratuko ditugu ondorengo testuan: «*Oraingoan ere, gaurko krisitik asko galdu duen Eliza bat sortuko da bihar. Txikia egingo da, hasieratik abiatu*

¹⁵ RATZINGER, J., *Fe y futuro*, Ed. Desclée de Brouwer, Bilbao, 2017, 103-104. or.

¹⁶ *Ibid.*, 102-103. or.

*beharko du dena. Jada ezingo ditu abagune hobean jasotako erai-kin asko bete. Jarraitzaileak **galduko** ditu, eta horrekin batera gizar-tean dituen **pribilegio** asko. Orain arte baino askoz ere modu biziagoan aurkeztuko da, **borondate askearen elkarte** gisa, zein-
 era erabaki baten bidez baino ezin baita iritsi. Elkarte txikia den heinean, askoz ere indar handiagoz eskatuko du **kide bakoitzaren ekimena**. Ezagutuko ditu, noski, **ministeritza-era berriak** ere, eta apaiz ordenatuko ditu beren lanbidean jarraituko duten kristau saiatuak... Forma horiekin batera **ezinbestekoa** izaten jarraituko dute, orain arte bezala **ministerioan erabat jarduten duten apaizak**. Baina suposa daitezkeen aldaketa hauetan, Elizak berriro eta ausardia osoz aurkituko du berarentzat **funtsezkoa** dena, bere erdigunea beti izan dena: **Hirutasun den Jainkoagan**, Jesu Kristoren-
 rengan, gizaki bihurtutako Jainkoaren Semearengan **fedea** izatea, eta azkeneraino iraungo duen **Espirituaren laguntza**. Elizak **fedean eta otoitzean** berriro ezagutuko du bere benetako gunea eta **sakramentuak** ospakizun moduan biziko ditu, eta ez egitura liturgikoko arazo bezala»¹⁷.*

86. Errealismoz, Ratzingerrek ez ditu minimizatzen eraldaketa horren zailtasunak: «Oso zaila egingo zaio. Izan ere, gauzatze- eta argitze-prozesuak ere indar baliotsu asko galaraziko dizkio. Pobre bihurtuko du, txikien Eliza bihurtuko du. Prozesua are zailagoa izango da, ezabatu egin beharko baitira bai ikuspegi sektarioa, bai borondate ausarta. Honek guztiak denbora eskatuko duela aurreikus daiteke. Prozesuak luzea eta neketsua izan beharko du... Nire ustez, ziur nago Elizarentzat oso garai zailak izango direla. Bere benetako krisia hasi besterik ez da egin oraindik. Astindu handiak aurreikusi behar dira. Baina guztiz ziur nago amaierara arte iraungo duenaz ere: ez kultu politikoaren Eliza... baizik eta fedearen Eliza»¹⁸.

¹⁷ Ibid., 104-105. or.

¹⁸ Ibid., 105-106. or

87. Hala ere, bere ikuspegia itxaropen kutsu batekin amaitzen da: Eliza eraberritu hau, hain zuzen ere bere benetakotasun eta sakontasun espiritualagatik, gai izango da bakardadeak eta hutsune existentzialak markatutako gizateriari erantzun esanguratsuak eskaintzeko. «*Baina zatiketa horiek frogatu ondoren, eliza barneratu eta sinplifikatu batetik, indar handia sortuko da, erabat planifikatutako mundu batean bakartiak izango direlako gizakiak ezinbestean. Jainkoa beraientzat erabat desagertzen denean, beren pobretasun absolutu eta beldurgarria sentituko dute. Eta orduan aurkituko dute fededunen elkarte txikia guztiz berria dela beraientzat. Haienezako itxaropide garrantzitsu gisa, beti itsumustuka bilatu duten erantzun gisa*»¹⁹.

88. Duela bost hamarkada baino gehiago egindako analisi horren argikuspena harrigarria da gaur egun. Ratzingerrek aurreratu zituen aldaketak garapen betean daude, baina are esanguratsuagoa da aldaketa horiek eliz arazketarako aukera gisa interpretatzea. Kritika ezkor batera mugatu beharrean, bere ikuspegiak funtsezkoan zentratutako berritze-bide bat seinalatzen du: txikiagoa izan arren, Kristo aldarrikatze funtsezko bokazioa eta betiereko bizitzari buruzko mezua berraurkitzen dituen Eliza. Elkarte berritu honek ez du bere indarra bilatzen gizarte-egitura edo jardueretan, fedearen sakontzean, otoitz-bizitzan eta sakramentuen benetako ospakizunean baizik. Ratzingerrek aurreratu zituen borondatezko elkarte txikiak espazio batzuk izango lirake, non pertsonak, mundu teknifikatu baten bakardadearen eta hutsune existentzialaren erdian, benetakotasunez bizi izandako fede batetik sortzen diren zentzua eta itxaropena aurkituko lituzketen. Bere mezua gaurkotasun handikoa da oraindik ere: etorkizuneko Elizak ez du moda kulturaletara azaletik egokitu beharrik, baizik eta bere nortasun ebanjelikoari fideltasun sor-

¹⁹ Ibid.

tzailez eutsi behar dio, benetakotasun horrek, hain zuzen ere, transzendentzia behar duen mundu baterako itxaropen-argia bihurtuko duelakoan.

Bedeinkatzen eta onartzen duen Jainkoaren maitasunaren lekuko

89. Jainkoak mundua den bezala maite du, bere kontraesan eta zauri guztiekin: bere gerrak, borrokak, gezurrak eta asmo neurrigabeak. Kristo, mundu konkretu hau salbatzeko haragitu zen, beragatik hilez, giza bihotzaren gogortasuna gorabehera. Pablok dioen bezala: *«Nekez hilko litzateke norbait pertsona zuzen baten alde; agian bai, badaiteke norbait pertsona on baten alde hiltzeko prest egotea. Baina Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna»* (Erm 5, 7-8).

90. Jainkoaren maitasunaren agerpena kreaziotik gizakunderaino agertzen da. Kreaziokoan Jainkoa gauza onetan pozten bada, gizakundean bere maitasunak gaitzaren errealitatea ere berreganatzen du. Joanek dioen bezala: *«Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion... Jainkoak ez baitzuen Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, haren bitartez salbatzeko baizik»* (Jn 3, 16-17). Maitasun honek ez du eskatzen aldez aurretiko konbertsioa, baizik eta horrelako maitasun batekin topo egiteak bihotzak eraldatuko dituela uste du: *«Hau da benetako maitasuna: ez guk Jainkoari izan diogun maitasuna, berak guri izan diguna baizik, hau da, gure bekatuen barkamen-oparitzat bere Semea bidaliz erakutsi digun maitasuna»* (1 Jn 4, 10).

91. Jainkoaren maitasun honek bai eliza erreala, bere ahulezia eta kontraesan guztiekin, baita mundu erreala ere maitatzera bultzatzen gaitu. Horrek izan behar du gure maitasunaren

objektu, ez gure lehentasunak eta irrikak islatzen dituzten irudi idealizatuek. Benetan maite duguna sendatzen baino ezin dugu lagundu. Baina, beti harrigarriak eta askotan txundigarriak diren Eliza eta mundu konkretuak maitatzeko zailak gertatzen dira. Horregatik, Jainkoaren maitasunean parte hartu behar dugu, mundu honetara ahulak eta bekatariak sendatzera eta bedeinkatzera datorren Jesusen begiradan islatua.

92. Kristoren begirada horrek bedeinkatu egiten du gaitzespenaren aurrean ere, ekaitzaren erdian lasai, desilusioak edo samintasunak harrapatu gabe. Bereizmena bihotz alaiz egiten duen Eliza izatera gonbidatzen gaitu eta, zurrunbiloen erdian, ez du errudunik bilatzen, ezta lubakirik egiten ere, baizik eta etengabe bere begiak Jainkoarengana zuzentzen ditu. Bedeinkatzen duen begiradak berak onartzen du Jainkoaren lana apalengan ere. Horregatik, Frantziskok gogorarazten digun bezala, izan behar dugu: «*Uztarri leuneko eliza (ik. Mt 11, 30), zamarik ezartzen ez duena eta denei errepikatzen diena: zatozte, nekatu eta zamatuz guztiok, zatozte bidea galdu duzuenok edo urrun sentitzen zaretenok, zatozte zuek itxaropenari atea itxi diozuenok, Eliza hemen dago zuentzat!*»²⁰

Gurutzearen indarraren lekuko

93. Jesusen historian, gurutzea da bere bizitza piztuerarekin lotzen duen elementu nagusia, Pazko misterio osoari zentzua emanez. Berpiztua, lehenago, Gurutziltzatua da. Errealitate horrek fededunen elkartearen izatea eta testigantza taxutu behar ditu.

²⁰ FRANTZISKO, *Homilia Gotzainen Sinodoaren XVI. Ohiko Batzar Orokorren irekierako Meza Santuan* (2023ko urriaren 4).

94. Gurutzea ez da sinbolo abstraktu hutsa, kristau elkar-
tean bertute zehatzak modelatzen dituen indar eraldatzailea bai-
zik; bereziki adierazgarriak gertatzen dira beldurra, hertsadura
eta biolentzia nagusi diren mundu honetan. Gurutzea gure be-
giradaren erdian kokatzean, kristauok errealismo berezi bat ga-
ratzen dugu: badakigu gurutzea eta piztuera direla Jainkoak giza
historiari buruz duen behin betiko hitza, eta horrek mundua
ilusiorik eta autoengainurik gabe ikusteko aukera ematen digu.
Gurutzeak erakusten du munduak giza boterearen ilusiopean
jarduten duela, ia ulertzen ez ditugun indarrek kontrolatuta:
heriotzari diogun beldurretik eta menderatzeko dugun irrikatik
sortzen diren botereak, gezurrak prentsa-izenburuen bidez eli-
katzen dituztenak, segurtasun faltsuak eskaintzen dituztenak, in-
teres partikularrak mozorrotzen dituztenak «guztion ongia» bi-
latu nahian. Nekaldiaren etengabeko hausnarketak indar hauek
identifikatu eta aurre egiteko gaitasuna ematen digu, gure bizi-
tzak menpera ditzaten ekidinez.

95. Bortizkeriaz erantzun beharrean, gaizkia xurgatu eta
barkamena eskaintzen duen Jainkoa agertzen du gurutzeak.
Agerpen honek Elizari jarrera berdina gauzatzeko deia egiten
dio: zaurgarritasuna besarkatu eta barkamenaren botere adiski-
detzailean konfiantza izan. Horrela, kristau elkar-
teak «bestearekin» topo egitea aldatu dezake, mehatxu potentzialetik elkar
aberasteko aukerara.

96. Gurutzeak markatutako Elizak botere politikoarekiko
harreman bereizgarria ere garatzen du: Kristori jarraituz, mun-
duko botereekin lerrokatzea saihesten du eta Ebanjelioarekiko
leialtasuna lehenesten du. Gurutziltzatuarekiko gure identifi-
kazioa adierazten duen gurutzearen seinaleak kontraste sakona
adierazten du beldurraren, erresuminaren eta auto-babesaren
gainean eraikitako gizarteekin.

Gizadiaren batasunaren lekuko

97. Elizak maitatu behar duen munduaren ezaugarri dira elkarriketa eta elkarrekiko errespetua oztopatzen duten zatiketa sakonak. Haustura horiek «leialtasun estuak» elikatzen dituzte, eta beldurra, indarkeria eta hainbat talderen arteko gatazkak sortzen dituzte. Jainkoagandik urrun, gure interes partikularrak kosta ahala kosta sustatu nahian, boterean segurtasuna bilatzen dugunean gertatzen denaren seinale dira banaketa horiek.

98. Giza zatiketa horrek ez du aitortza bezainbeste azalpenik behar: bekatuaren anbiguotasunetan bizi den mundu erori baten aztarna da. Ez da gainditzen egari buruzko teoria abstraktuen edo proposamen moral generikoen bidez, baizik eta desberdin pentsatzen eta jokatzeko dutenen bizi-testigantzen bidez. Kristau elkar-tea gatazkarako hurbilketa guztiz berezia eskaintzera deitua dago, Kristogandik sortzen den «batasuna» irudikatuz, etsaiak barkatzen eta indarkeria arbuiatzen duena. Hirutasun den Jainkoak erakusten digu benetako batasunak ez duela deuseztatzen, baizik eta aniztasuna bereganatzen duela, kreazioaren aberastasuna bere adierazpide aniztetan aitortzera gonbidatzen gaituelarik: bere mila koloreen edertasuna, osagarrien emankortasuna, tarteko ñabarduren grazia. Horregatik, Eliza, Vatikanoko II. Kontzilioak islatzen duen bezala, «*Jainkoarekin estu-estu batzearen eta gizadi osoaren batasunaren sakramentu bezalakoa edo ezaugarri eta tresna da Kristorengan*»²¹.

99. Eliza katolikoa «aniztasunean batasuna» da. Elizaren benetako batasuna tentsioak bere gain hartuz hazten da, harmonia idealizatu baten falta izan gabe. Hura eraikitzeko, nabarmendu nahi ditugun jarrera batzuk behar dira:

²¹ VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Elizari buruzko *Lumen gentium* Konstituzio dogmatikoa, 1.

1. Aniztasuna aberastasun katoliko gisa ospatzea. Egiari leial izan nahian, egiaren ñabardurez dakien elkartea gara, beraz, gure baitan dohain eta sentsibilitate ezberdinak lortzea baloratzen dugu. Pertsona eta kultura desberdinetatik ikasiz gara garena. Horrek funtsezkoa eta osagarria bereizten laguntzen digu, gure harrotasuna beheratzen du eta sektarismoari aurre egiten dio. Elizak tradizio komuna transmititzen du, eta karisma, dohain eta sentsibilitateen barne-aniztasuna tradizio horren zati da, hain zuzen ere, eta merezi du aitortua eta ospatua izatea.
2. Gatazkak ez nabarmentzea. Barne-batasunari eustea erronka bereziki konplexua da Eliza global batean. Azpimarra legitimo edo ikuspegi jakin batzuen arteko desberdintasunak norgehiagoka bihur daitezke, non karitatea galdu egiten baita eta alderdi bakoitza egiaren jabe eskusibotzat jotzen. Bereziki zaindu behar dugu gure hizkera adierazpen publikoetan eta sare sozialetan, baina baita gure jarrerak ere barne elkarrizketetan.
3. Etengabe otoitz egitea, batasuna eskatuz. Elizaren batasuna ez da giza ahaleginen emaitza bakarrik, jainkozko ekintza eta dohainen emaitza ere bada. Bestea arbuiazeak edo gutxiesteak ahulezia adierazten du norberaren fedean, Jainkoak batasunerako egiten duen deia irmoa eta sendoa baita. Fede partekatua gure zatiketak baino handiagoa dela onartzetik sortzen da batasuna. Baina behin eta berriz eskatu behar zaio Aitari, Kristok berak egin zuen bezala (Ik. *Jn* 17,21).
4. Abegi ona egitea. Batasuna, barne eskakizuna izateaz gain, harrera eta abegi bezala hedatzen da ahul, atzerritar eta desberdinarengana. Munduaren beldur defentsiboaren aurrean, Elizak bere ateak irekitzen dizkie talde baztertuei,

baita beste kultura eta tradizioei ere, pertsona bakoitzarengan Jainkoaren seme-alaben duintasun bera aitortuz.

100. Elizak bere inguruko haustura sozial asko islatzen ditu askotan. Baina batasuna bizitzen saiatzen denean, zatiketak gainditzeko batasun eta inspirazio ikur bihurtzen da. Ez da lan erraza, eta ez dugu Jainkoaren laguntzaz lortzen joango garenaz aitorpenik espero, baina hori da Jaunaren borondatea. Senidetasun unibertsala eraikitzeke lan egiteak, hala ere, etxetik hastea eskatzen du, bertan justizian oinarritutako barne harremanak eraikiz. Horrela bakarrik erakutsiko dugu, fedea etengabeko zatiketa eta gatazketan odolustera kondenatua ez dagoen beste mundu bat inspiratu eta sostengatzeko ahalmena duela.

Alaitasunaren lekuko

101. Frantzisko Aita Santuak, *Evangelii gaudium* idazkian, alaitasuna aurkezten du kristau esperientziaren ezaugarri bereizgarri eta ukaezin gisa. Fedearen hasieratik presente dagoen poz hau, ez da azalekoa edo iragankorra: ez gara irribarrez ari, ez eta emozio hutsez ere, bizitza fededunaren oinarritzko izaera eratzen duen jarrera sakon batez baizik.

102. Jainkoak pertsona bakoitzarekiko eta giza familia osoarekiko duen baldintzarik gabeko maitasunaren esperientzia da horren iturria. Kristorengan agertu eta gauzatutako maitasun honek, barruko tristura eta hutsuneetatik askatzen du, bizitza zentzuz eta helburuz betez. Sinestunak maitasun horren indarra eta sakontasuna aurkitzen dituenean, gozamen bat pizten zaio bihotzean, eta gozamen hori ezin da ezein zirkunstantzia kaltegarritan iraungi.

103. Kristorekin izandako topaketa eraldatzailetik sortutako alaitasun hau, konpartitua izateko da eta, horregatik, berez,

bultzada misiolari bihurtzen da. Benedikto XVI.aren hitzetan, «gaur beharrezkoa da ebanjelizazio berri baten aldeko eliz konpromiso sendoagoa, sinestearen poza berraurkitzeko eta fedea komunikatzeko gogoia berriro aurkitzeko»²². Ebanjelizatzearen pozak iraun egiten du sufrimenduaren eta malkoen artean ere, analisi ezkorren artean, esperientzia sakon batetik sortzen delako eta ez dagoelako kanpoko inguruabarren mende.

104. Kristau alaitasuna eliz bizitzako funtsezko elementuetan elikatzen eta adierazten da: liturgia, karitatea eta elkarte esperientzia. Hemen Eukaristiak leku berezia du, Frantziskoren arabera «ez da santuen saria, ez! Bekatarien Ogia da»²³. Hemen, Frantziskoren aitasantualdiko uste nagusi bat adierazten da: Elizak denei irekia egon behar du. Sakramentuen ateak, batez ere kristau bizitzarako sarrera den bataioarenak, ez dira itxi behar arrazoi arbitrarioengatik. Eliza graziaren bideratzaile izatera deitua dago, ez epaile; enpatiaz hartu eta entzun behar ditu, bereziki esperientzia mingarriengatik zaurituta iristen direnak.

105. Gure erronka alaitasun hori berreskuratzea da, Elizak egin beharko lukeenaren edo egin beharko ez lukeenaren itxaropen ez oso errealistak edo erabat okerrak dituztenek irabazten utzi gabe, horrela diagnostiko etsigarriak elikatuz. San Pauloren hitzetan, «Poz zaitetze Jaunarengan beti! Berriro diotsuet, poz zaitetze!» (Flp 4, 4). Horrela bakarrik lortuko dugu Kristo den bake eta poztasun iturri agortezin hori jende gehiagok aurkitzea.

²² BENEDIKTO XVI.a, *Porta fidei* Gutun Apostolikoa (2011ko urriaren 11).

²³ FRANTZISKO, *Angelusa* (2021eko ekainaren 6).

6. ARDO BERRIA ZAHAGI BERRIETAN: ELIZA BERRITUAREN ZERTZELADAK

106. Kristau testigantzak, gure garaietan, Elizaren berritze sakon baten eskutik joan behar du. Ez da nahikoa kristaudi-erregimena iragana dela egiaztatzea, ezta azaletik testuinguru berri batera egokitzea ere. Erronka erradikalagoa da: Ebanjelioaren jatorrizko freskotasuna berpiztea, otzana izanik, Kristoren indar eraldatzaile guztia mantenduko duen proposamena munduari eskaintzeko.

107. Eliz eraberritze hau fededun bakoitzarengan hasten da eta elkarte osora zabaltzen. Maila pertsonalean, gure jarrerak eta portaerak birpentsatu behar ditugu: Jainkoarekin eta besteekin harremana izateko modua, gatazkei aurre egiteko modua, eguneroko bizitzan fedea adierazteko dugun modua. Elkarte gisa, funtsezkoa itzuli behar dugu, ez botereagatik edo eraginagatik, baizik eta transmititutako testigantzaren benetakotasunagatik distirutzen duen identitate ebanjelikoa indartuz.

108. Ondorengo oharrek konbertsio pertsonal eta misiolari baterako gonbidapena izan nahi dute, konbertsio integrala. Aurkezten dugun eliz berrikuntzaren alderdi bakoitzak irakurketa bikoitza eskatzen du: zer esan nahi du aldaketa horrek nire bizitza pertsonalerako? Nola lagun diezaioket, nire errealitate konkretutik, Eliza benetakoago eta ebanjelikoago bati? Espero dugu horrela berritutako elkarte, txikia eta itxuraz hauskorra izan arren, Jainkoaren Erreinuaren ezaugarri eraginkorra izan daitekeela.

Konfiantzan bizi den Eliza

109. Berpiztuaren elkarte gara, eta piztuerarako bidea gurutzetik pasatzen da. Egia horrek markatzen du gure norta-

suneta munduan egoteko modua. Ez dugu txalorik bilatzen, ezta ageriko arrakastarik ere. Jainkoak gonbidatzen gaitu gure bizitzarekin lekukotza ematera, zalantza eta nahasmen artean ere konfiantzaz bizitzea posible dela adieraziz.

110. Zailtasunek ez gaituzte geldiarazi behar. Gure fedea hazi eta indartzeko aukerak dira. Nola espero zezakeen ikasleak gurutzea itxaropenez besarkatzeko adorea erakutsi Maisuarena ez den beste bide bat? Gurutzea ez da oztopo bat, gure kristau bizitzaren bihotza baizik. Elizaren edo munduaren egoeragatik aieneka bizi beharrean, heriotza garaitu duen Hari konfiantzaz begiratu nahi diogu, Bere garaipenean pozez eta ziurtasunez ibiliz²⁴.

111. Badugu konfiantzarako arrazoirik. Ez gure indar edo asmoengatik, bere herria eskutik uzten ez duen Jainkoaren leialtasunagatik baizik. Kalbarioko itxurazko porrota Pazkoko garaipean bihurtu zuen Jauna bera adi da gaur ere. Frantzisko Aita Santuak gogorarazten digun bezala, ez gara historian galdutako umezurtzak, Espiritu Santuak bere Eliza gidatzen duen ziurtasunarekin dabilzan seme-alaba maitatuak baizik²⁵. Bizi gaitezen, bada, ikuspegi ireki batekin eta bihotz fidakor batekin.

112. Konfiantza hori ez da inozokeria, ez eta azaleko baikortasuna ere. Jainkoak bere promesak betetzen dituelako uste sendoa da, baina ez beti espero dugun moduan. Gaur egungo erronken artean, Jesusen elkarteak itxaropena zabaltzen du, ez dena konponduta daukanaren segurtasunetik, giza historia, tentsio eta zailtasun artean ibiliz, azkenean Jainkoa guztiengan

²⁴ Frantzisko Aita Santuaren kartela bere apartamentuaren sarreran: *Vietato lamentarsi*. Revista Alfa y Omega, 2027ko uztailaren 14.

²⁵ FRANTZISKO, *Meza Santuko homilia*, Santa Marta etxea (2017ko maiatzaren 22).

dena izango den egun horretarantz doala dakienaren bakez baik (1 *Ko* 15, 28).

Fede esperientzia lantzen duen Eliza

113. Benetako ebanjelizazioa fede bizi eta esperientziadun batetik sortzen da. Inork ezin du eman ez daukana, eta horregatik fedearen esperientzia lantzea ezinbesteko baldintza da edozein eliz berrikuntzarako. Santa Teresak zioen bezala, *garai irmoetan, Jainkoaren lagun min-minak*²⁶. Adierazpen horrek garrantzi berezia du gure egungo testuinguruan.

114. Aldaketa sakoneko garaiak bizi ditugu, non kristau izateak aukera pertsonal iraunkorra eskatzen duen, berau ahuldu edo erlatibizatzeke gai diren indar ugarien aurrean. Errealitate horrek *Jainkoaren lagun min-minak* izango diren fededunak eskatzen ditu, beraien fedea barne-bizitza sakon batean elikatuko duten Espirituaren gizon eta emakumeak.

115. Behar dugun berrikuntza fededun bakoitzaren bihotzean hasten da. Jainkoarekiko adiskidetasunak elikatutako eta otoitz pertsonalean nahiz elkartekoan landutako konbertsio erreal batek bakarrik sostengatu dezake edozein eliz eraberrikuntza. Isiltasun eta otoitz guneak, erretiro eta gogo jardunetan parte hartzea, bidelaguntza espiritualak, fedearen bizi-esperientzia hau sakontzen laguntzen duten bitartekoak dira.

116. Aktibismoak eta azaleko entretenimenduaren bilaketak markatutako kultura batean, sakonki bizi izandako fede baten testigantza bereziki esanguratsua da. Kontua ez da gauzak egitea bakarrik, Jainkoa gure bizitzetan indartsu egiten uztea

²⁶ Ik. *Bizitza liburua*, 15, 5, SANTA TERESA JESUSENA, *Idazlan guztiak*, Karmel sorta 14, Markina-Xemein 2015, 115.

baizik. Eraldaketa pertsonal hau benetako ebanjelizazio ororen oinarria da: Kristorekin bat-egite batetik berez sortzen den fede hori transmititzeko nahiaren iturria.

117. Pertsonalki lantzen dugun fede-esperientziaren adierazpenak liturgiaren elkarteko ospakizunean iristen du bere adierazpen bete, otoitz partekatuan, Hitzaren entzutean, elkarteko bereizmenean; esperientzia horietan, fede pertsonala aberastu eta indartu egiten da anai-arrebekiko topaketan. Horrela, fedearen esperientzia berriztapen-iturri bihurtzen da, bai norberarentzat, bai elizarentzat.

Konfiantza sorrarazten duen Eliza

118. Sinesgarritasuna da gure erronka handienetako bat. Giro askotan, konfiantza baino errezelo gehiago sortzen ditu eliz erakundeak. Egoera honek sustrai konplexuak ditu: mendeetan zehar pentsamendua eta kultura osatu dituen Elizaren pisu historikoa, adin txikikoei eta pertsona zaurgarriei egindako abusuen gisako krisi mingarriak, gure sinesgarritasuna kaltetu dutenak, eta batzuek gehiegizkotzat jotzen duten eta nagusitzen den posizio historiko baten emaitzatzat jotzen duten presentzia publikoa.

119. Ebanjelioaren eta munduaren arteko tentsioa saihestezina da, baina oker bat litzateke urruntze hori guztia hoztasun sekularrari egozte. Frantzisko Aita Santuak dioen bezala, zintzotasunez aztertu behar ditugu geure funsgabetasunak: *«aitor dezagun, batzuetan, kristau sineste sendoak aurkezteko dugun erak eta pertsonak tratatzeko moduak lagundu egin dutela gaur deitoratzen duguna eragiten»*²⁷.

²⁷ FRANTZISKO, *Amoris laetitia* Aholku-hitz apostolikoa (2016ko martxoaren 19), 36.

120. Fedea eta kristau mezua kontrakulturalak dira alderdi askotan, baina horrek ez gaitu salbuesten gure hizkuntza eta jarduteko moduak zaintzeko beharretik.

121. Ebanjelioak egian bizitzera deitzen gaitu, eta eskakizun hori batez ere Elizari berari aplikatzen zaio. *Diognetori Gutunak* gogorarazten digunez, lehen kristauak ez ziren beren botereagatik bereizten, baizik eta *bizimodu miresgarri eta, guztien ustez, sinestezina agertzeagatik*. Bere sinesgarritasuna mezuaren eta hau bizitzeko moduaren arteko koherentziatik sortzen zen, gure itxaropenaren arrazoia emanez, bai, «*baina apaltasunez eta errespetuz*» (1 Pe 3, 16).

122. Koherentzia hori berreskuratu behar dugu. Kontua ez da ezinezko perfektzioa bilatzea, baizik eta benetakotasun ebanjeliko handiago batean ibiltzea. Konfiantzazkoak izango gara, ez hutsik gabeko bizitza izateagatik, gure mezuen egiazkotasunagatik eta behartsuekiko gure konpromisoagatik baizik.

123. Konfiantza ez da eskatzen eta ez da inposatzen: testigantza koherente batekin eta Kristoren maitasuna benetan islatzen duen elkarte-bizitza batekin irabazten da egunero. Alde horretatik, garena eta egiten duguna ondo komunikatzea ere garrantzitsua da.

Apaltasun bidea egiten duen Eliza

124. Umiltasuna da beste bertute guztiak posible egiten dituen baldintza. Ratzingerrek profetikoki adierazten zuen bezala, eliz eraberrikuntza «*ez da etorriko errezetak bakarrik ematen dituztenengandik... ez da etorriko beren burua arau hutsezin gisa onartzen dutenengandik*»²⁸. Harrokeria, txikia edo nabarmena, tentazioa da egia defendatu nahi duen fede-elkatearentzat.

²⁸ RATZINGER, J., *Fe y futuro*, Ed. Desclée de Brouwer, Bilbao, 2017, pp. 102-103.

125. Umiltasuna, ezer baino lehen, askatasuna da: egian ibili ahal izateko askatasuna; mehatxaturik sentitu gabe akatsak onartzeko askatasuna; bihotz-berritzeko bidea luzea dela eta graziaren laguntza behin eta berriz eskatu gabe ez dugula aurrera egingo onartzeko askatasuna; ez daukagun perfektioa ez agertzeko askatasuna; munduarekin elkarrizketarako askatasuna, entzuteko eta ikasteko gaitasun handiagoarekin. Frantzisko Aita Santuak adierazten duen bezala, bere zauriak aitortzen dituen Eliza Ebanjeliotik gertuago dago irudi idealizatu baten atzean ezkututzen dena baino²⁹.

126. *Diognetori idatzitako Gutunak kristauak pobre diren eta asko askorentzat aberasgarri diren pertsonatzat deskribatzen ditu; ez dute ezer eta gauza guztietan ugari dira. Desohorea jasaten dute, eta horrek ospea ematen die.* Paradoxa honek gaur egungoa izaten jarraitzen du: bere txikitasuna eta kontraesanak onartzen dituen Eliza bakarrik izan daiteke benetan Erreinuaren ezaugarri.

127. Historiak erakusten digu Eliza indartsu eta buruaski sentitzen denean, bere Jaunagandik eta mundutik urruntzeko joera duela. Aitzitik, itxurazko ahulezia uneetan, bere egoera sufritzailea apaltasunez onartzen duenean, indar handiagoz distiratzten du Ebanjelioaren muina. Izan ere, «*ahul naizenean, orduan naiz indartsu*» (2 Ko 12, 10). Ez gaitzezen txiki sentitzearen beldur izan, orduan egin baititzake Jaunak gauza handiak gurekin³⁰.

Jomuga Hitzagan bilatzen duen Eliza

128. Kristau bizitza Jainkoaren Hitza arretaz entzutean oinarritzen da. San Jeronimok zioen bezala, *Liburu Santuari ka-*

²⁹ FRANTZISKO, *Gotzainen Sinodoaren XVI. Ohiko Batzar Orokorra* dela eta egindako *Penitentzi gaubelan* hausnarketa (1 de octubre de 2024).

³⁰ Ik. 125. salmoa.

surik ez egitea Kristori kasurik ez egitea da. Hitzean, Jesusengan errebelatutako jainkozko aurpegia ez ezik, Jainkoak bakoitzari proposatzen digun geure existentziaren neurria eta santutasunerako bidea ere aurkitzen ditugu. Kristau-elkartek etengabe erkatzen dute beren bizitza Hitzarekin, bertan aurkituz bereizmenerako argia eta erabakietarako zuzenbidea. Ez da, beste batzuen artean, erreferentzia bat gehiago, baizik eta Eliza bezala gure ibilera guztia argitzen duen lehen mailako orientazioa.

129. Behar dugun eliz eraberritzeak Jainkoaren Hitzaren garrantzia berraurkitzean datza. Horrek esan nahi du pastoraltza osoaren animazio biblikoa indartzea, gure eukaristia-ospakizunetan Hitzaren liturgiari garrantzi handiagoa ematea, eta testu sakratuetarako sarbidea sustatzea hainbat eratarata, baita teknologia berriekin ere. Fededun bakoitzak Jainkoaren Hitzean bere bizitza espiritualerako eguneroko janaria aurkitu ahal izatea, eta eliz elkarteak munduan bere misioa bideratzen duen argia topatzea da helburua. Liburu Santuetara hurbiltze hori ez da azterketa akademiko batera mugatu behar. Elkarrizketa bizian sartu behar dugu Hitz biziarekin, eta elkarrizketa benetakoa bada, interpelatu egin behar gaitu. Bibliako taldeak, Jainkoaren *lectio divina* partekatua, eta Hitzarekin otoitz egiteko uneak espazio pribilegiatuak dira, horren bidez Espirituak gaur Elizei esaten diena entzuten ikasten baitu elkarteak. Hutsak diren hitzez eta mezu iragankorrez beteriko mundu batean, Jainkoaren Hitzak oinarri sendoa eskaintzen du bizitza pertsonala eta elkartekoa eraikitzeko. Arretaz eta otoitz eginez entzuteak laguntzen digu garaian garaiko ezaugarriak bereizten eta Eliza gisa ditugun erronkei sormenezko leialtasunez erantzuten. Hitzaren bidez etengabe moldatzen eta orientatzen uzten duen elkarte batek bakarrik eskain dezake Ebanjelioaren testigantza sinesgarria munduaren erdian.

Eukaristia janari duen Eliza

130. Espiritualtasuna ez da aukerako gehigarria: gure fedearen bizi-muina da. Aktibismoak eta dispersioak markatutako mundu batean, funtsezkoak izan behar du gure bizitzaren aingura. Eguneroko otoitzak, laburra izan arren, gure kristau nortasunarekin lotuta mantentzen gaitu. Baina igandeko Eukaristian lortzen du gure bititza espiritualak bere adierazpenik osoena eta eraldatzaileena.

131. Fededun askok, jarduera ugariak irentsita, ez dute igandeko Eukaristiaren zentralitatea behar beste baloratzen. Frantzisko Aita Santuak gogorarazten digun bezala, «*Eukaristia ez da perfektuei ematen zaien saria, ahulentzat sendabide eskuza-bala eta janaria baizik*»³¹. Baina gure biderako beharrezko elikagaia da, Kristorekin dugun batasuna eta gure elkarte-lokarriak era zehatz eta utziezinean zaintzeko modua da, partekatua den eta gu bezala fededun diren eta bat egiten dugunekin topo egite ohikoa eta fisikoa behar duena.

132. Igandeko Eukaristia ez da betebeharrerritual hutsa: elkarte eraikitzeko, gure fedea elikatzeko eta karitatearen indarra mantentzeko modu pribilegiatua da: «*Praktikan maitasun-ekintzara ez daraman Eukaristia bere baitan zatikatua da. Eta, oster, –oraindik zehazkiago adieraziko dugunez–, maitasunaren “agindua” posible da bakarrik eskakizun soila ez delako: maitasun “agindua” izan daiteke lehenik emana izan delako*»³². Berta, Hitza entzuten dugu elkarrekin, Kristorengan bat egiten gaituen ogia partekatzen dugu, eta eusten gaituzten lokarriak indartzen ditu-

³¹ FRANTZISKO, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013ko azaroaren 24), 47.

³² BENEDIKTO XVI.a, *Deus caritas est* Gutun entziklika (2005eko abenduaren 25), 14.

gu. Lehen kristauen historiak erakusten digun bezala, elkarteko kultura zen haien bizitza komunaren «erdi muin indarberritzai-
lea», hots, *habitus* bereizgarri hori eratzen zen espazioa, desber-
din eta ezagutgarri egiten zituena.

133. Izan ere, presbiteroaren gaitasunek, ospakizunaren zain-
tzak eta liturgiaren edertasunak eukaristiaren misterioaren espe-
rientzia beteagoa lortzen laguntzen dute. Honek, hala ere, ezin digu
funtsezkoena ahaztarazi: Eukaristiaren erdigunea Kristoren pre-
sentsia sakramental erreala zehatza eta bizia da, bere elkartera modu
bakar eta ordezkazinean iristen dena. Eta bai, fedea behar da hau
sinesteko. Jaunaren mahaiaren inguruan biltzen garenean, aitortzen
dugu Kristo bera dela gure bizitzarako beharrezko elikagaia. Ez dira
gure programa edo baliabideak Elizari eusten diotenak, mahai par-
tekatuan ematen den Piztuaren presentzia bizia baizik.

134. Ratzingerrek seinalatzen zuen bezala, «*etorkizuneko
Elizak berriro aurkituko du... berarentzat funtsezkoa dena: Hiru-
tasun den Jainkoagan fedea... fedean eta otoitzean bere benetako
erdigunea aitortuko du eta sakramentuak ospakizun gisa experi-
mentatuko ditu berriro*»³³. Igandeko Eukaristiarekiko konpromi-
soa berritu dezagun. Anai-arrebak animatu ditzagun bertan
parte hartzera. Hor aurkituko dugu Ebanjelioaren lekuko sines-
garri izateko beharrezko argia eta elikagaia. Baina hori lortzeko,
Kristok ospakizun eukaristikoa duen presentzia erreal eta or-
dezkaezinaren fedea berreskuratu behar dugu.

Mundutarkeriari eusten dion Eliza

135. Mundua zerbitzatu nahi dugu mundukoak izan gabe
(Ik. *Jn* 15, 19; 17, 16). Bereizketa horrek desberdintzen ditu

³³ RATZINGER, J., *Fe y futuro*, Ed. Desclée de Brouwer, Bilbao, 2017, p. 105.

bere nortasunari leial zaion Eliza bat eta, atsegin izan nahian, esanguratsua izateko gaitasuna galtzen duen beste bat. Ezin gara inguruarekin mimetizatu, paretarekin nahasten den kameleoi bat bezala. «Hobeto ahokatzeko» gure nortasuna diluitzeko tentazioa beti dago hor, aitortza eta estimua bilatzen dugulako.

136. Mundutarkeria espiritualak aurpegi asko ditu: guru-tzea saihesten duen kristautasuna, norberak nahi duena auke-ratzen duen «nahierako» fedea, «talde berogailuen» espiritual-tasuna, non seguruago eta erosoago sentitzen naizen, arriskatu gabe, harridura edo arbuiorik sortzen ez duenarekin geratuz, azken finean, munduak baloratzen eta aitortzen duenarekin har-rapatuta geratzen den fedea. Frantzisko Aita Santuak oharta-razten duen bezala, *Jainkoari aintza ematen ez badiogu, elkarri ematen diogu*³⁴.

137. Ebanjelioa da gure altxor bakarra eta bertan Kristo gurutziltzatua predikatzen zaigu, «*juduentzat onartezina eta jen-tilentzat zentzurik gabea dena*» (1 Ko 1, 23). Tentsio hori ez da aldatuko. Mezua «onargarriagoa» bihurtzeko leuntzen saiatzea irteerarik gabeko bidea da, gure identitatea galduko baitugu bi-latzen dugun onarpenera irabazi gabe.

138. Mundutartakeria azakeria hutsa baino sakonagoa da. Forma desberdinak hartzen dituen dinamika da, garai bakoitzera moldatuz, baina bere esentzia mantenduz, Ebanjelioaren erradi-kaltasuna lokartzen duen bizi proposamen gisa definitu liteke. San Paulo ohartarazten digu ez dezagun jokatu «*itxaropenik ez dutenen antzera*» (1 Ts 4, 13), gure fedea munduak entzun nahi duenera egokituz.

³⁴ Ik. FRANTZISKO, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013ko azaroaren 24), 93.

139. Antidotoa beti funtsezkoa itzultzea da: Kristo gurutztiztatu eta berpiztuaren zentralitatea. Egia horretan errotutako Elizak eutsi diezaioke nagusitzen den kulturari diluitzeko tentazioari. Ez dugu behar herrikoiak izatea, leialak izatea baizik. Eta benetakotasunez eta maitasunez bizitako leialtasun hori da Jainkoaz hitz egiten entzun behar duen mundu honetan gure testigantza esanguratsu bihurtzen duena.

Konplexudun izatea gainditzen duen Eliza

140. Sekularizazioa ez da Europako Elizaren egungo erronka hutsa. Bada erronka sotil eta kezkarriago bat: kristau askoren herabetasuna eta konplexudun izatea, beren fedeari eutsiz, hura adierazteaz lotsatuta diruditenak. Existitzeagatik barkamena eskatu, edota gizartearen begirada eszeptiko eta batzuetan mespretxagarriaren aurrean geure burua zuritu beharko bagenu bezala.

141. Kontua ez da inor epaitzea, ezta besteen gainetik jartzea ere. Harrokeria ez da inoiz Ebanjelioaren lagun ona izan. Baina gure kristau nortasuna ezkutatzera eramango gaituen apaltasun faltsu batean ere ezin gara murgildu. *Diognetori Gutunak* deskribatzen dizkigun lehen kristau haiek bezala, gure fedea segurtasun lasaiatz bizi dezakegu, zaratarik gabe, baina baita konplexurik gabe ere.

142. Kristoren mezua proposamen baliotsua eta beharrezkoa da gizateriarentzat. Ez da iraganeko erlikia bat, etorkizunerako bideak irekitzen dituen altxor bizia baizik. Indibidualismoak eta zatiketak markatutako mundu batean, garapen pertsonala guztion onarekin, aurrerapen materiala espiritualetanarekin, norbanakoaren askatasuna erantzukizun partekatua-rekin integratzen duen ikuspegia eskaintzen du Ebanjelioak.

143. Kristau-proposamenak, giza duintasunaren defentsarekin, maitasunean eta zerbitzuan oinarritutako elkarte baten

ikuspegiarekin, eta jomuga transzendentera daraman itxaropena duenarekin, oinarri sendoa izaten jarraitzen du gizarte bidezkoago eta senideago bat eraikitzeko. Badugu arrazoirik harro sentitzeko, hitzaren zentzurik onenean, gure fedez. Eta ez norbere merituengatik, gure kontsekuentzia faltaren gainetik ere jasotzen dugun dohainaren handitasunagatik baizik.

144. Konplexuak gainditu eta gure kristau nortasuna naturaltasunez onartzeko garaia da. Ez inori inposatzeko, den bezala partekatzeko baizik: jaso dugun eta beren bizitzetarako zentzu sakonagoa bilatzen dutenei eskaini nahi diegun dohaina.

Bere sinodo-izaera bereganatzen eta garatzen duen Eliza

145. Sinodaltasuna ez da moda bat, ezta antolakuntza-berritasun bat ere, baizik eta Elizaren izateko eta jarduteko modu espezifikoa bat, gure izaerarik sakonena adierazten duena, elkartasunean doan Jainkoaren Herri gisa, batasun hori Jaunak deitzen gaituen aniztasunean islatuz. Ez da zerbait berria, testuinguru sozial eta kultural espezifikoa batean garatu behar dugun dimentsio eratzailerik baizik.

146. Batera ibiltze honek, Elizako kide guztiengan bataiotik sortzen den duintasunaren aitormen aktiboa dakar. Ez dago lehen eta bigarren mailako kristaurik: bataiatu bakoitzak bere dohain eta karisma zehatzen arabera laguntzen du elkarren misioaren garapenean. Fededun guztien erantzunkidetasun berezituia ez da kontzesio bat, gure sinestun izatetik sortzen den existentzia bat baizik.

147. Eliza sinodal batek entzun egiten du hitz egin aurretik, elkarrizketan aritzen da inposatu beharrean, eta, bere nortasun eta sinesmen espezifikoei uko egin gabe, Espirituaren bi-deak bereizten ditu elkarteetan. Entzute eta elkarrizketa horiek ez

dute elizaren aginpidea eta elkartasuna ahultzen, indartu egiten dituzte, modu ebanjelikoago eta emankorragoan mintzatzen utziz. Sinodalitateak ez du zalantzan jartzen ministerio ordenatua, baizik eta klerikalismotik harago ezartzen du, bere Elizarrentzat Jaunaren dohain gisa baieztatuz eta beharrezko zerbitzu gisa, bataiatu guztien erantzunkidetasunarekin naturalki harmonizatzen dena. Sinodalitatearen praktika apal eta benetakoak gure garairako ahots profetiko bihurtzen du Eliza.

148. *«Gure garaian nabarmenagoak dira desberdintasunak, gobernu eredu tradizionaletik gero eta desilusio handiagoa, demokraziaren funtzionamenduetatik desengainua, joera autokratiko eta diktatorial gero eta handiagoak, merkatu eredu pertsonen ahultasuna eta sorkuntza kontuan hartu gabe menderatzea, eta gatazkak elkarrizketaren ordez indarrez konpontzeko tentazioa»³⁵.*

149. Horrelako mundu batean lekukotasun alternatiboa eskaintzen du sinodo-erako bideak. Gatazkak indarrez konpontzeko tentazioaren aurrean, sinodalitateak elkarrizketaren eta bereizmen partekatuen kultura garatzen du, eta horrek erantzun berriak eman diezazkieke gaur egungo erronkei.

150. Pazientziatz entzutea, barne-komunikazioa eta elkar zaintzea dira Kristoren elkarte izateko modu honen funtsezko zutabeak. Ahots guztiak entzun ahal izateko espazioak sortu eta mantendu behar ditugu, non herri fededunaren «sensus fidei» delakoa agertu ahal izango den, «Jainko bakarra, guztiei egintza guztietara eragiten diena» (1 Ko 12, 6) izango delarik elkarrekin ari dugun bidea argituko duena.

³⁵ FRANTZISKO - GOTZAINEN SINODOAREN XVI. OHIKO BATZAR OROKORRA, Sinodo-erako elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa (24 de noviembre de 2024), 47.

151. Alderdi sinodalaren garapena funtsezko alderdia da Jaunak eragiten digun eliz eraberrikuntzan. Kontua ez da kanpoko eskarietara egokitzea, baizik eta Eliza gisa dugun izaerari leialagoak izatea, jardunbide arbitrarioak gaindituz eta baitaiatu bakoitzean Espirituaren presentzia onartuz. Aniztasunean bat egiteko testigantza hori itxaropen ikur bihur daiteke guztion ongia eraikitzeko modu inklusiboagoak eta parte-hartzaileagoak bilatzen dituzten gizarteentzat.

Bazterretatik senidetasuna eraikitzen duen Eliza

152. Giza duintasuna balio absolutua da. Denok ez gara jaiotzen aukera eta baliabide berberekin, duintasun hori errespetatua eta sustatua izan dadin. Kristau elkarteak garenez, geure eskubideak defendatzen ahalegindu behar dugu, eta pertsona guztiek, batez ere ahulenek, loratzeko eta garatzeko behar diren baldintzak izan ditzaten ziurtatu behar dugu.

153. Kezka hau ez da halabeharrezkoa kristau bizitzan, baizik eta Jainkoaren bihotza bera islatzen du, abandonatu eta zapalduenganako eskaera berezia erakusten duena. Ez da kasualitatea Jesusek zorionekotzat jotzea justiziaren gose eta egarri direnak (Ik. *Mt* 5, 6). Aseta geratuko diren promesak aktiboki lan egitera lotzen gaitu, gabeziak pairatzen dituztenen kausa gurea eginez.

154. Jesusen elkarteak ezin du Ebanjelioaren agindua ikusi ez balu bezala jokatu: gosetuak artatu, kanpotarrak hartu, biluziak jantzi, gaixoak bisitatu eta presoak lagundu behar ditu (Ik. *Mt* 25, 31-46). Ez dira ekintza osagarri edo komenigarriak, baizik eta, existitzen denean, gure fedearen benetakotasuna islatzen duen eta, falta denean, zalantzan jartzen duen funtsezko dimentsio bat. Eskakizun etiko eta espiritual honek zaugarrie-

nen oinazea entzun eta erantzutera deitzen gaitu, ez berehalako ekintzen bidez soilik, beharrezko bihotz-berritze pertsonal eta elkarteko baten parte gisa baizik.

155. «Pobreen aldeko lehentasunezko aukera» ez da moda iragankorra, ezta estrategia pastoralaren ere, Kristorenganako fedetik sortzen den eskakizuna baizik. Benedikto XVI.ak honela adierazten du: «*Pobreen aldeko lehentasunezko aukera, bere txirotasunarekin gu aberasteko gugatik pobre bihurtu den Jainkoarenganako fede kristologikoan inplizitua dago*»³⁶.

156. Gure elkarteak harrera-gune bihurtzeak hitzetatik harago joatea esan nahi du, senidetasuna eguneroko praktika bihurtzeko. Denak entzunak eta baloratuak izango diren espazio duinak sortzea dakar, indibidualismoa gaindituko duten elkartasun harremanak sustatzea eta marjinatuen inklusioa aktiboki sustatzea. Senidetasuna ezin da ideal abstraktu batean geratu, baizik eta gure eguneroko bizitza moldatzen duen konbikzio zentral gisa agertu behar da. Frantzisko aita santuak esan bezala, Jainkoa ez da «esprai» bat, ez da airean dabilen ideia bat³⁷. Jainkoa maitasun konkretu eta pertsonala da.

157. Horregatik, egoera ahulean daudenekin dugun konpromisoa ekintza zehatzetan islatu behar da: oinarritzko beharrei erantzuteko programak, sustapen sozialeko ekimenak, garapenerako aukerak sortzen dituzten proiektuak. Frantzisko aita santuak dioen moduan, «*Pobreziaren kausa estrukturalak konpontzeko beharra ezin da gehiago luzatu, ez emaitzak lortu eta gizartea konpontzea bera eskakizun pragamatikoa gertatzen zaigulako bakarrik, baita ahula eta duintasun-gabea bilakatzen*

³⁶ BENEDIKTO XVI.a, «*La Aparecida*» *Santutegian egindako Latinoamerika eta Karibeko Gotzainen V. Batzar Orokorren hasierako Mintzaldia* (2007ko maiatzak 13).

³⁷ FRANTZISKO, *Meza Santuko homilia*, Santa Marta Etxea (2014ko urriaren 9).

duen gaixotasunetik gizartea sendatzeko ere»³⁸. Baina ekintza puntaletatik harago, sentiberatasun iraunkorra landu behar dugu, premia duen pertsona bakoitzarengan eragiten digun eta bihotz-berritzera deitzen gaituen Kristoren aurpegia bera ikusi ahal izateko. Horrela bakarrik sortu ahal izango ditugu alternatibak, txikiak baina esanguratsuak, bakarrik eta abandonatuta sentitzen direnei itxaropena emango dietenak.

Ebanjelizatzen duen laikodun Eliza

158. Fedearen transmisioa ezin da egitura instituzionalen esku utzi. Kristauek beren bizitzetan fedea duen balioa aurkitzen dutenean, esperientzia hori partekatzeko nahia sortzen da, noski. Parrokiak erreferentzia puntu izaten jarraituko du eta kristau sarbideko prozesuek bere garrantzia mantenduko dute, baina inongo egiturak ezin du ordezkatu lekukotza pertsonalaren indarra eta laikoaren gonbidapen zuzena euren giroetan.

159. Apaizek eta diakonoek, baita laikoaren ministerioetan aritzen direnek ere, lan ordezkazina egiten dute, baina bere irismenak muga naturalak ditu: elkartean jada parte hartzen dutenengana edo elkartearekin harremanetan jartzea aktiboki bilatzen dutenengana iristen dira nagusiki. Gaur egun pertsona gehienak eliz egituretatik urrun bizi dira. Hala ere, horietako askok kristau laikoekin eguneroko harremanak dituzte euren lanetan, auzoetan eta zirkulu sozialetan.

160. Lehen kristauen historiak erakusten duenez, fedea apurka-apurka aldatuz joan zen, familia- eta adiskidetasun-sareetan izandako esperientzien berri ematearen ondorioz. «Kutsatzeko»

³⁸ FRANTZISKO, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013ko azaroaren 24), 202.

modu hori da oraindik ere eraginkorra. Laikoek, bizitza sekularrean murgilduta, aukera paregabeak dituzte krisialdi-uneetan, bilaketan edo laguntza eta orientazioa beharrean dauden pertsonen laguntzeko. Hitz egoki batek, testigantza koherente batek, gonbit zintzo batek bihotzak ireki diezazkioke fedearen esperientziari.

161. Laikoek egindako ebanjelizazio horrek ez du estrategia konplexurik edo prestakuntza espezializaturik behar. Gure bizitzetara ematen diena naturaltasunez eta alaitasunez partekatzea besterik ez da. Ahultasun- eta bilaketa-uneak une pribilegiatuak dira, eta hurbiltasunetik eta errespetuzko afektuz egindako itxaropen-proposamen batek, eremu emankorra aurki dezake.

162. Ebanjelizatzearen etorkizuna, laikoaren misiolari-bokazio hori berraurkitzean datza. Ez beste zeregin bat bezala, munduaren erdian bizitako kristau identitatearen dimentsio natural bezala baizik.

Lehen iragarpena lehenesten duen Eliza

163. Ebanjelizatzea da Elizaren funtsezko bokazioa. Sekularizazio gero eta handiagoko testuinguru batean, lehenengo iragarpenaren garrantzia berraurkitu behar dugu, eliz eraberrikuntza ororen eragile gisa. Fedea ezagutu ez dutenengana edo galdu dutenengana iristea ez da zeregin bat gehiago, gure pastoral grinaren funtsa baizik.

164. Lehenetsun horrek bihotz-berritze sakona eskatzen du. Jendea gure deialdietara eta kristau sarbideko taldeetara fedearen aukera argiarekin edo Jesusekin elkartzeko gutxieneko esperientzia batekin iritsiko balitz bezala jokatzeko dugu. Baina hori jada ez dago ziurtagarria, baita sakramentuak jaso dituztenen artean ere. Gizartea Jainkorik ez balego bezala antolatzen da eta bizi da. Horregatik, lehen iragarpenaren estrategia bat behar

dugu, ondo pentsatua eta sendoa, Jainkoa existitzen dela aldarrikatuz hasten dena eta, gure bizitzan sartzen uzten badiogu eralda gaitzakeela dioena.

165. Iragarpen honen muina aldarrikapen gozo bat da: «*Jesu Kristok maite zaitu, hark bere bizia eman zuen zu salbatzeko eta bizirik dago eta zure ondoan egunero, zu argitzeko, zu indartzeko, zu askatzeko*»³⁹. Mezu hau esperientzia bihurtzen denean, Jainko-gogoa pizten du entzuten dutenen artean.

166. Iragarpen hau errotzeko, «gonbidapenaren eta harrearen kultura» garatu behar dugu, kristau elkartearen berotasuna sentituko duten espazioak sortuz. Elizak aparteko zerbait bizi duen gertuko familia gisa agertu behar du. Erritmo pertsonalak errespetatzen dituen pedagogia pairakor honek Jainkoaren jokamoldea islatzen du, inposatu gabe gonbidatzen baitu.

167. San Paulok diosku: «*Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nor hots eginik ez bada?* » (Erm 10, 14). Kristoren maitasun eraldatzailearekin topo egin duten pertsona eta talde kristauak dira iragarpen honen eragileak, eta jende berriarengana iristea nahi dute. Ez dute prestakuntza akademiko sakona behar, bere bizitzari zentzua ematen dion zerbait aurkitu izanaren uste kutsakorra baizik.

168. Lehenetasun hori giza baliabideen eta baliabide materialen banaketan islatu behar da. Elizbarrutiko gure elizek ekimen bereziak bultzatu behar dituzte, Kristorekin bat egitea errazteko. Katekumenotza eta formazio iraunkorra gero etorriko dira kristau bizimodu errota eta koherentea garatzeko. Esperientziak erakusten duenez, beren fedea komunikatzea lehenes-

³⁹ Ibid., 164.

ten duten talde eta elkarteek Ebanjelioaren poza berreskuratzen dute eta beste batzuk erakartzen dituzte.

169. Lehen iragarpenak, benetakotasunez biziak, zirkulu bertutetsu bat sortzen du: Jainkoaren maitasuna esperimentatzen dutenek fedean sakontzea eta hura partekatzea nahi dute. Horrela, Elizak bere jatorrizko misiolari dinamismoa berreskuratzen du eta Erreinuaren ezaugarri sinesgarri bihurtzen da, gaur egungo munduarentzako salbamenerako sakramentu.

Fedea familian bizitzea eta helaraztea animatzen duen Eliza

170. Familia-hezkuntzan ez dago neutraltasunik. Gurasoek, nahitaez, baloratzen dutena transmititzen dute, ikastearen garrantzitik hasi eta kirol-grinetaraino, erantzukizunaren zentzutik hasi eta afektuak eta frustrazioak kudeatzeko eraraino. Errealitate hori bizitzaren dimentsio erlijiosoari ere aplikatzen zaio.

171. Familian eratzen da pertsona eta naturaltasunez jaiotzen da federa. Familia funtsezko bertuteak lantzeko espazio kritikoa da: pazientzia, itxaropena, Jainkoarenganako eta besteenganako konfiantza. Guraso fededunek fedearen esperientzian has ditzakete seme-alabak, ez kanpoko inposizio gisa, familia-bizitzaren dimentsio natural gisa baizik. Otoitz partekatua, ebanjelioaren mundu-ikuskerara islatzen duten praktika sendoek babestutako elkarrizketak, edota igandeko Eukaristian parte hartzea, txikitatik kristau nortasuna osatzen duten elementuak dira.

172. Erlijio-arloko etorkizuneko «aukera aske» baten aitzakiapean prestakuntza espirituala atzeratzea akatsa izango litzateke. Fedea gertuko harremanetan transmititzen da, eta bat bera ere ez da familiakoa baino hurbilagokoa. Transmisio hori indartu egiten da familia kristau-elkarte bizi batean integratuta

dagoenean, nagusitzen diren ikusmolde kulturalen ordezeko naratiba bati babesa eman eta eusten dionean.

173. Familiaren kristau ikuspegia gizarte modernoetan nagusi diren ideiekin erkatzen da. Hauek norbanakoaren autonomia azpimarratzen duten bitartean eta seme-alabak askatasunerako muga edo zama ekonomiko huts bezala ikusten dituzten bitartean, kristau ikuspegiak bizitza berri bakoitza Jainkoaren dohain bezala ospatzen du. Ikuspegi horrek ezkontzaren eta sexualitatearen ulermena barneratzen du, gozamen pertsonaletik haratago doana, gazteei horizonte esanguratsuagoa eskainiz. Seme-alabak izateko eta fedean hezteko erabakia bera jarrera kontrakulturala bihurtzen da: indibidualismotik haragoko etorkizunaren aldeko apustua islatzen duen erabakia, eta Jainkoaren probidentziarekiko konfiantzaren adierazpena.

174. Guraso kristauak lehen ebanjelizatzaile gisa duten zeregina berraurkitu behar dute. Ez daude bakarrik: eliz elkarteak lagundu egin behar die, familiako praktika eta balore kristauak zentzua hartzen duten testuingurua emanaz, sostengatu eta garatu ahal izateko.

Fedean indartsu nahiz ahul direnak onartzen dituen Eliza

175. Elizaren erreformarako zenbait planteamenduk fede ilustratua eta elkartearen konpromiso-maila handia eskatzen du. Ikuspegi hori erlijiozkotasun forma herrikoiak eta kidesan molde ez hain biziak gutxieteko tentazioan eror daiteke.

176. Nork epaitu dezake fedearen kalitatea? Zein irizpideekin neurtuko dugu konpromiso kristauaren benetakotasuna? Ez dute arazoa konpontzen jatorrizkoa omen zen baina egiaz sekula izan ez zen izaera bat birsortzeko saiakerak. Lehen hiru mendeetako kristau-elkarteen ezaugarria, oro har, nortasun sen-

doa zen arren, hainbat «arkeologismo» kritika sinplistik izan daitezke, gerora garatutako intuizio baliotsuak ahazten dituztenak. Garrantzitsuenetako bat katolizismoak zenbait kidedasun-modu integratzeko duen gaitasuna da.

177. Parrokia katolikoa ez da inoiz oinarritu talde hautatu baten kidedasun sendoan, atxikimendu ez baztertzailerean atalasean baizik. Irekitasun horrek subjektu desberdinen elkarte bat sortzen du, konpromiso maila desberdinekin. Fededun elkartearen gunea eskakizun handiko katekumenotzarengan eraiki arren, Elizak identifikazio maila ezberdinetara zabalik egon behar du. Katekumenotza indartsua federa hurbiltzeko modu errazagoekin bizi zen lehen mendeetan bezala, orain ere erantzun maila ezberdinak ahalbidetzen dituen irekitasun hori mantendu behar dugu.

178. Eguneroko bizitzak ezartzen ditu bere eskakizunak. Familia artatzeak, lanak eta erantzukizun zibilek denbora hartzen diete kristau elkarretek egindako proposamenei. Fededun asko ez dira erlijioan soilik bizi, beren fedea bizitzako beste dimentsio legitimo batzuekin integratzen dute. Ezin dugu nahi izan guztiok elizarekiko inplikazio maila altua izatea.

179. Irtenbidea ez da katolizismo errikoiairen intuizioak alde batera uztea, testuinguru berri batera egokitzea baizik, nagusiki hiritarra den testuinguru batera, non jendeak zentzua bilatzen duen. Gure elkarreketan lotura-gune mailakatuak egongo dira: kristau konprometituenetatik hasita, fedea baloratuz, beste dei eta jarduerekin bateratuz bizi dutenetaraino. Aniztasun hori ez da akats bat, Elizaren unibertsaltasuna islatzen duen ezaugarria baizik.

Bake soziala eta herrien artekoa sustatzen duen Eliza

180. Jesusenganako fedea bakearen eta elkar ulertzearen indarra da, gero eta zatiketa sakonagoek markatutako mundu

batean. Elizan, indar hori aniztasunean batasun gisa agertzen da lehenik: «*Eliza, katolikoa da, «harmoniaren etxea» delako, non batasunak eta aniztasunak elkarrekin uztartzen baitakite aberastasun izateko*»⁴⁰. Barne-mailan bizi izandako elkartasun-esperientzia honek kristau-elkartea gaitzen du gure garaiko gizarte-hausturen erdian adiskidetze-tresna izateko.

181. Gaur egungo munduak gero eta tentsio handiagoak ditu: polarizazio politikoa, gatazka etnikoak, desberdintasun ekonomikoak, migrazio krisiak eta munduko bakea mehatxatzen duten gerrak. Errealitate horien aurrean, elkar ulertzeko zubiak eraikitzea eta gatazkaren eta bazterketaren dinamikak gainditzea posible denaren seinale izan nahi du Elizak. Kontua ez da benetako desberdintasunak alde batera uztea, horiek elkarriketaren eta elkarrekiko errespetuaren bidez kudeatzen ikastea baizik.

182. Kristau-elkartek elementu baliotsuak ematen dizkio giza-bakearen eraikuntzari: desberdintasun kultural eta etnikoak gainditzen dituen gizakiaren ikuspegia, eskubideak eta betebeharrak orekatzen dituen pentsamendu sozialaren tradizioa, eta, batez ere, guztion ongiaren bilaketatik abiatuta, aniztasunaren kudeaketan milaka urteko esperientzia. Elizaren doktrina sozialak funtsezko printzipio argiak eskaintzen ditu gizarte bidezkoagoak eta baketsuagoak eraikitzeko.

183. Erlijioen arteko elkarriketak, Frantzisko Aita Santuak irmoki bultzatuak, bokazio baketzaile hori adierazten du: «*Erljioak, bake bideak bilatzen ez badituzte, berez gezurtatzen dira*»⁴¹. Tradizio erlijiosoak elkar ulertzeko zubiak eta elkarriketarako

⁴⁰ FRANTZISKO, *Katekesia* (2013ko urriaren 9).

⁴¹ FRANTZISKO, «*Bakearen zubiak*» *Bakearen aldeko erlijioen arteko Topaketaren irekierarako Mezua* (2018ko urriaren 14).

inspirazio-iturriak izan daitezke eta izan behar dute, eta irmoki baztertu behar da zatiketa-iturri edo indarkeria-legitimatzaile bihurtzea. Bakearekiko eta elkar ulertzearekiko konpromiso hori ez da hautazko estrategia bat, Ebanjelioaren bihotzetik bertatik sortzen den eskakizuna baizik.

184. Elizak bere testigantzarekin erakusten du posible dela uste sendoak mantentzea fundamentalismoan erori gabe, egia defendatzea ezberdina gutxietsi gabe, eta justizia bilatzea gatazka hauspotu gabe. Haustura sozialak sakontzen diren mundu honetan, adiskidetze eta bake testigantza hau inoiz baino beharrezkoagoa da.

ONDORIOA: GARIZUMAKO GURE BIHOTZ-BERRITZEA ERAGITEN DUEN HITZA

185. *«Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen» (Jn 1, 1.14).* Joanen Ebanjelioaren hitzaurre honek funtsezko egia bat erakusten digu: eraldatzen duten hitzak haragitzen direnak dira, bizitza konkretuan forma hartzen dutenak, historia eta testigantza egiten dutenak. Garizuma da, hain zuzen ere, Hitzak gure bizitza pertsonaletan zein elkartekoan sakonago gauzatzea bilatzen duen garai pribilegiatu hori.

186. Hitz batzuk indarrez entzuten dira munduko bozgorailuetan, baina hutsak dira gure gizateriaren bihotzetik ernetzen ez direlako. Eta badira itxuraz ahulak izanik ere egiazkotasunaren indar eraldatzailea gordetzen dutenak. Aska baten hauskortasunean gizon egin zen lehen Hitz hura bezala, egiazko hitzek ez dute nagusitu beharrik: haien boterea eguneroko bizitzan gauzatzeko duten gaitasunean datza, munduan egoteko eta sen-

titzeko beste modu bat eratzen duten ohitura bihurtzeko. Gure bizitzak gure hitz gaixoek diotenari eusten dionean, Ebanjelioa modu sinesgarrian iragartzen da.

187. Orrialde hauetan partekatu ditugun gogoeten helburua benetako bihotz-berritze pastoral eta misiolaria iradokitzen gauzatutako hitzak izatea da. Ez dute errezeta magikorik eskaini nahi, ezta kristau elkarteak aurrez aurre dituen erronkei berehalako irtenbiderik ere. Gehiago dira lekukotasun pairakorren indarra berraurkitzeko gonbita, Jainkoak historian jokatzen jarraitzen duela uste izatekoa, nahiz eta ez beti espero dugun moduan eta denboran. Gure elkarteen bizitzan gauzatuak izan nahi duten hitzak dira, jarrera konkretu bihurtu, bihotz-berritze pertsonalak inspiratu eta elkarteko eraberrikuntza bultzatu nahi dutenak.

188. Pastoral gutun honetan aurkeztutako gogoeta bakoitzak gure bizitzetan benetako aldaketa eragitea bilatzen du. Konfiantzan bizi den Eliza izateko gonbidapena, konfiantza sortzen duena, apaltasunean ibiltzen dena, Eukaristia elikagai duena, mundutarkeriari aurre egiten diona, konplexudun izatea gainditzeko duena, sinodo-erakoa izatea bere gain hartzen duena, bazterretatik senidetasuna eraikitzen duena, aurkarien arteko bakea sustatzen duena, dei horiek guztiek eraldaketa sakon eta iraunkorra eskatzen dute. Ez dira iradokizun pastoral hutsak, Ebanjelioak eskatzen digun eta Garizumak berritzen laguntzen digun etengabeko bihotz-berritze horren adierazpen zehatzak baizik.

189. Etorkizuneko Eliza ez da eraikiko aldarrikapen handiekin, ezta estrategia mediatikoekin ere, kristau bizitza xume baina koherentea bizi duten gizon eta emakume konkretuen testigantza umil eta saiatuarekin eta Ebanjelioa benetakotasunez islatzen duten elkarteekin baizik. Mundua beren botere edo era-

ginagatik baino Jainkoaren Hitzarekiko fede handiagatik eraldatu zuten lehen kristau haiek bezala, guk ere, oso bestelako egoera batean, gure artean gizon egiten jarraitzen duen Hitz horren lekuko izan nahi dugu.

190. Gure hitzak behin-behinekoak eta irekiak dira. Baina agian, eraberrikuntzarako hazi bihur daitezke, Garizumak eskatzen digun bihotz-berritze pertsonal eta elkartekoaren bultzadan, bideari begira. Gure esperantza elikatu nahi duen Jubileu Urte honek gogorarazten digu *Elizaren bizitzan emandako urrats berri bakoitza iturrira itzulera dela, Piztuarekiko topaketaren esperientzia berritua*⁴². Hau da gure itxaropena eta zeregina: Hitza Elizaren bizitzan gauzatzen jarraitzea, munduak ikusi eta sine-tsi ahal izateko. Jubileu Urtearen testuinguru pribilegiatuan bizi izan dezakegun garizumako aldi hau, benetan, gure bizitzan eta elkarteetan Ebanjelioa era beteagoan mamitzen lagunduko digun grazia unea izan dadila.

Iruñea eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteiz
2025eko martxoaren 5a, *Hausterre-eguna*

- + FLORENCIO ROSELLÓ AVELLANAS, O. de M., Iruñeko Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina.
- + JOSEBA SEGURA ETXEZARRAGA, Bilbaoko Gotzaina.
- + FERNANDO PRADO AYUSO, CMF Donostiako Gotzaina.
- + JUAN CARLOS ELIZALDE ESPINAL, Gasteizko Gotzaina.

⁴² FRANTZISKO - GOTZAINEN SINODOAREN XVI. OHIKO BATZAR OROKORRA, *Sinodo-erako elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa* (2024ko azaroaren 24), 1.

BERRIKUSTEKO GIDA
PASTORAL IDAZKIA “ERAMAN ONEKO ERKATZEA”
“Aztertu guztia eta hartu on dena” (1 Tes 5,21)

Gida honek pastoral idazkiaren irakurketa pertsonala erraztu nahi du, otoitz-giroan egina, Garizumako gure konbertsioan lagun diezaion. Gida osoa lasai lantzeko une batzuk eskaintzea iradokitzen da, testu bibliko bakoitzaren gogoeta eginez, galderak egin aurretik. Gogoetak aberasgarriagoak izango dira laguntzaile espiritual batekin edo fede-talde batekin partekatzen baditugu.

“EZ IZAN BELDURIK, ARTALDE TXIKI HORREK”
(Lk 12,32) [6-22ra]

- Nola bizi dut pertsonalki kristautasunaren pisu soziala gutxitzea?
- Nola erreazionatzen dut balio kristauekiko urruntasun kulturalaren aurrean?

“MAITA ITZAZUE ZEUEN ETSIAK”
(Mt 5,44) [23-41era]

- “Lagun eta etsai” gisa ikusten al dut mundua?
- Konfrontazioaren dinamikan eramaten uzten al dut neure burua?
- Desberdin pentsatzen dutenen ona onartzeko gai al naiz?

“ZUEK ZARETE LURRAREN GATZA”

(Mt 5,13) [42-52ra]

Nire kristau testigantzenen berrikuspena

- Nire kristau nortasunari eusten diot ala egokitzeko lausotu egiten dut?
- Zein zoriontasun bizi dut egokien egunerokoan?
- Nire bizitzak ba al du kristau izaera nabarmenik?
- Eragin positiboa al dut nire inguruan?
- Norbait gonbidatu al dut Kristo ezagutzera?

“ESPIRITUAREN FRUITUA PAZIENTZIA DA”

(Gal 5,22) [53 a 75era]

Nire kristau pazientziaren berrikuspena

- Jainkoaz fidatzen al naiz ala berehalako emaitzak bilatzen ditut?
- Nola erantzuten diot etsaigoari edo arbuioari?
- Nire testigantza pazientziatsua eta errespetuzkoa al da?

“GARI-ALEA, LURREAN ERORI ETA HILTZEN
EZ BADA...” (Jn 12,24) [77tik 105era]

Eliz eraberritzean egin dudak ekarpena berrikustea

- Nola laguntzen dut elkarte bizi eta harrera onekoa osatzen? [77-81]
- Txikitasunetik bizi naiz ala boterea eta eragina bilatzen ditut? [82-88]
- Bedeinkatzen eta onartzen duen Jainkoaren maitasunaren lekuko al naiz? [89-92]
- Onartzen al dut gurutzeta Kristoren jarraipenaren parte gisa? [93-96]
- Batasunaren alde egiten al dut lan edota zatiketa elikatzen dut? [97-100]

“EZ DU INORK ARDO BERRIRIK SARTZEN ZAHAGI ZAHARRETAN” (Mk 2,22)

Kristau bizitza berri batego oharrak [106-184era]

- (a) Konfiantza eta fede-esperientzia: “Jainkoarengan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur” (Sal 56, 4-5) [109-117]
 - Jainkoarenganako konfiantzan bizi al naiz edota beldurrak agintzen du nigan?
 - Nire fede-esperientzia pertsonala lantzen al dut? Nola?
 - Fedean hezteko denborarik hartzen al dut?
- (b) Umiltasuna eta benetakotasuna: “ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni” (Mt 11,29) [118-127]
 - Aitortzen al ditut nire mugak eta bihotz berritzeko premia?
 - Neure ahuleziekin edota irudi idealizatu batekin aurkezten al dut neure burua?
 - Benetakoia izan nahi al dut nire kristau bizitzan?
- (c) Hitza eta Eukaristia: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi” (Mt 4,4) [128-134]
 - Jainkoaren Hitza sarritan hartzen al dut bizitzako janari?
 - Eukaristia beharrezko grazia baten oparitzat hartzen al dut?
 - Nire otoitza eta Kristorekin dudana bizitza espirituala zaintzen al ditut?
- (d) Mundutasunaren aurkako erresistentzia: “Ez maitatu mundua, ezta munduko gauzak ere” (1 Jn 2,15)
 - Mundutasunaren zein alderdik eragiten didate gehien? [135-139]
 - Nire kristau nortasuna giro sekularizatueta mantentzen al dut?

- Nire bereizketa eta erabakietan irizpide ebanjelikoei lekua ematen al diet?
- (e) Ebanjelizatzea eta lekukotza: “Nire lekukoak izango zarete” (Eg 1,8) [140-151 eta 158-174]
 - Nire fedea konpartitzen al dut aukera sortzen denean?
 - Nire familia-bizitza fedearen lekukotza al da?
 - Nola parte hartu dut Elizaren misio ebanjelizatzailan?
- (f) Konpromiso soziala: “Gose nintzen eta jaten eman zenidaten” (Mt 25,35) [152-157 eta 180-184]
 - Behartsuekiko kezkarik adierazten al dut?
 - Bakearen eta adiskidetzearen alde lan egiten al dut? Nola? Non?
 - Zer egingo dut gizarte justuago bat eraikitzeko?

“BIHOTZ BERRI BAT EMANGO DIZUET” (Ez 36, 26)
Konbertsio-konpromiso zehatzak

Garizuma honetarako nire asmoa da:

- Nire bizitza espiritualean hobetu beharreko alderdi zehatz bat.
- Aldaketa zehatz bat nire kristau testigantzan.
- Besteen zerbitzurako ekimen praktikoko bat.
- Nire elkartearikiko konpromiso bat.

Hori lortzeko bitartekoak:

- Zein urrats zehatz emango ditut?
- Zer laguntza bilatu behar dut?
- Nola ebaluatuko dut nire aurrerapena?

IDATZ
—argitaletxea—

ISBN: 978-84-96903-81-4



9 788496 903814